

Arrasate

PRESSA

ARRASATE • ARAMAIO / Egubakoitza / 2002ko martxoaren 15a / 577. zenbakia

Arrasateko Industria Museoa

Oniritziaren eta finantzaketaren zain



ORAIN ETA HEMEN: GURASOENDAKO ESKOLAK/7 • KIROLA: I. UGARTE ESPAINIAKO TXAPELKETAN/10

Osasun Gida

AKUPUNTURA

- INTEGU (Masajea, Osteopatia) Uarkape, 18 behea. ezk. ☎ 943 77 13 34

DERMATOLOGIA

- CONCEPCION TAMAYO Dk. Maalako Errabala, 23-2.A. ☎ 943 77 05 57

ERREUMATOLOGIA

- GOROSARRI - TROJAOLA Dreak. Zaldibar, 1-1. ☎ 943 77 00 40

FISIOTERAPIA ETA GAIBERRITZEA-ERREHABILITAZIOA

- ANDONI ETA MARIA BASTERRETXEA Errehabilitazio Zentrua Garibai Etorb. 6B. ☎ 943 77 03 96
- FRANCISCO JAVIER LOPEZ DE MUNAIN. (Medikua) Zaldibar, 4-1. ☎ 943 77 14 72
- HONORIO IZQUIERDO. Mendia Jauregia. Erdiko kale, 22. ☎ 943 79 72 16
- MARIA GARDOKI LEGORBURU. ☎ 670 52 19 34

LOGOPEDIA

- ARRASATE LOGOPEDIA ZENTRUA Erdiko kale, 37. ☎ 943 79 79 46
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga, 10. ☎ 943 79 48 77

MASAJEAK

- JOSE LUIS ABUIN (Quiromasajea, akupuntura, naturopatia) San Josepe, 10 Behea, D (Kiroldegian ere bai) ... ☎ 943 77 01 33

ODONTOLOGIA

- ARRASATE HORTZ KLINIKA Iturriotz, 17-1 Ezk. ☎ 943 79 72 23
- ARREGI HORTZ KLINIKA zerkaosteta, 19 behea. ☎ 943 79 71 90
- GIPIZKOAKO ODONTOLOGIA ESPEZIALITATEEN ZENTRUA. Iturriotz, 7 Bis. ☎ 943 79 73 88
- IRIARTE IRURETA, ANE MAITE Iturriotz, 7-1. ☎ 943 79 69 45
- LOPEZ DE GOIKOETXEA (Goiz eta arratsalde) Alfonso X. Jakintsua, 5. ☎ 943 79 17 74
- LORENZO MARTIN, RAFAEL Zarugalde, 3-1.-B. ☎ 943 77 12 63

OPTIKA

- ARRASATE OPTIKA (Optika, Optometria eta kontaktologia) Kontzeziño, 6. ☎ 943 79 25 98
- LARRAÑAGA OPTIKA (Optika eta optometria) Juan Carlos Guerra, 1. ☎ 943 79 29 95

ORTOPEDIA

- ORTO LAGUN ORTOPEDIA Kontzeziño, 2. ☎ 943 79 89 34

OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

- UDALAITZ MEDIKU-ZENTRUA (Analisi klinikoak, R-X) Ferrerías, 56-Behea. ☎ 943 79 44 22

OSTEOPATIA

- NEREA BENGOA (Bizkarreko minak eta lunbalgiak) Azoka kalea, 4. ☎ 659 58 66 89

PSIKOLOGIA

- ARRASATE LOGOPEDIA ZENTRUA Erdiko Kale, 37. ☎ 943 79 79 46
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga, 10. ☎ 943 79 48 77
- TXOMIN NUÑEZ Olarte, 10. ☎ 943 79 88 16


UROLOGIA

- LLUCH, ALBERTO (Centro Médico Udalaiz) Ferrerías, 56. ☎ 943 79 44 22

KALEINKESTA/ Alkate izengo bazitze, zertan gastauko zeunke udaleko dirue?



NEKANE AMOZARRAIN
Ikaslie



JOSEBA TORRES
Ikaslie



JUAN CARLOS SANTANA
Langillie



TXOMIN URRUTIA
Langillie



DEIANE MADINABEITIA
Langillie



ANA MARI ARRUABARRENA
Jubilaua

Euskeriaren alde egitteko zerbaitetan gastauko neuke. Horrekin batera, etxe gehixago egingo neuke; eta jaixetan gaztiendako eta zaharrendako ekintza gehixago egingo nittuke.

Gaztiak kirola egitteko gauza gehixago: futbolerako, adibidez. Eta hamazortzi urtetik gorakuendako etxiek, oso txarto daguelako etxiek erostie, oso garestixek dielako.

Aparkalekuek, parke gehixago be biherko lirake, eta gaztiak egoteko leku gehixago be biher die. Beste dana, Udalien pentsau biherko leukie, horretarako pagetan dutzegu-eta.

Aparkalekuek eta gaztien dako lokal gehixago, itxura danez larri dabitze-eta. Bestela, gainontzekue ondo dago. Ez dakit zenbat diru daguen, adibidez, aparkalekuek egitteko.

Umiendako jolaslekuek, eta neurriek hartu kalietan horrenbeste automobil egon ez daixen, lur azpiko aparkalekuekin, eta oiñzekuek kalien ibiltzeko leku gehixago euki daixien.

Aparkalekuek biher die, duda barik. Jente dana dabil gai horrekin desastre-desastre. Horrekin batera, gauza asko esango nittuke, baiñe esandakue da gehixen arduraketan nauena.

TXALOAKETATXISTUAK



TXISTUAK PILAK BATZEKO ONTZI FALTAN Aspaldian, birziklapena handituz doala esan ohi dugu. Herritarrak kristala, papera, kartoia eta plastikoa banatzen ohituz doaz. Bestalde, pila zaharrak oso kutsakorrek direla jakin badakigu, baina askotan pilak botatzeko ontziak apurtuta egoten dira, eta horren ondorioz, ezin horiek birziklatu. Ea ba, Mankomunitateak edo dagokionak konpontzen dituen.

ETABARRUAN...

ORAIN ETA HEMEN /8

KIROLA /11

KULTURA /14

Udaltzain izateko deia

Hamar bat udaltzain behar dira herrian. Udalak lehenbait lehen aukeratu gura ditu.

Herri kirolak Musakolan

Martitzenean, Musakolako kiroldegian 300 bat gazte ibili ziren herri kirol probak egiten.

Ekon taldeak disko berria

Ekon taldeak disko berria kaleratu du egunotan. *Sala-tzen dut* izena dauka lan berriak.

ASTEKODATUA

79

TABERNA ZENBATUTA DAUDE HERRIAN

Udaleko datuen arabera, 79 taberna daude zenbatuta herrian. Jakina, zerrenda horretan ez daude sartuta jatetxe, gozotegi-kafetegiak, landetxe, merendero eta antzeko beste negozio batzuk.

BESTEKEESANA

“Kontuan hartu behar da lehendik ere epaileen giroa nahiko itxia zela, nahiz eta Euskal Herrian beste leku batzuetan baino itxiagoa izan; beti izan da endogamiko xamarra. Orduan, horrelako giro itxi batean, beldurra presente egoteak eta eskoltez inguratua egoteak, baten beldurra bestearekin elikatzera darama eta baita 'beldurrik ez duenak zerbaitegatik ez du izango' bezalakoak entzuten dira. Zurrunbilo horrek guztiak nahiko giro insanoa eragiten du (...) Norbait hiltzea justifikatzerakoan pertsona eta karguaren artean egiten duten disoziazioa benetan oso gogorra da (...). Ezin zaio eman horrelako erakunde bati nork merezi duen bizitza eta nork hiltzea erabakitze-ko gaitasuna”

NEKANE SAN MIGEL
ELKARRI/02-3-01

HERRITARRENBERBAK/ Txipi Ormaetxea



Euskal Unibertsitateari, bai!

Ez dit, egia esan, ilusio handirik sortzen gezurretan Euskal Herriko Unibertsitatea deitzen den horretaz berba egitea. Behingoan sexu-kontuez idazteko asmoa nuen, baina...

Kontua da UPV/EHUko errektore Manuel Montero erdaldunak *Euskal-dunon Egunkarian* berriki egin dioten elkarrizketan honelakoak isuri dituela: “Euskara sendotzeko alferrik da EHU ikastegi elebakar bitan zatikatzea”. Bere iritziz, oso ondo goaz goazen moduan, unibertsitate elebidunerantz. Demagun hori dela bide zuzena. Zenbat denbora beharko dugu benetako unibertsitate elebidunera ailegatzeko? 50 urte? Gehiago? Norbaiti astakeria irudituko zaio epe luze hori, eta euskarak azken urteetan unibertsitatean egin duen gorakada botako dit froga gisa. Ondo. Baina eman ditzagun datu batzuk: UPV/EHUn (alde batera uzten ditut beste

unibertsitateak) 3.700 irakasle inguru daude. Horietatik mila edo dira euskaldunak. Hor, bistan da, sekulako hipoteka daukagu. Jakinik, gainera, euskara ez dakiten gehienak funtzionarioak direla eta oso oso gutxi erakutsi dutela euskara ikasteko borondatea.

Eta behartu inork ez ditu behartuko ikastera. Horixe besterik ez genuen behar!

Nik, aldiz, uste dut euskara sendotzeko unibertsitate elebakar behar dugula, euskaraz funtzionatuko duena. Txillardegik sarritan aipatu duen bezala, Europako hainbat herrialde-tan halaxe da: unibertsitateak elebakarrak dira, bakoitzak bere hizkuntzan dihardu, eta ez nahasian (“todos juntos y en unión”). Gutxienez Finlandian, Belgikan eta Suitzian hala gertatzen da. Eta baita Kanadan ere. *Jakin* aldizkariaren hurrengo zenbakian horretaz arituko da Txillardegik. Jakin-minez gaude horren zain.

“Nik uste dut euskara sendotzeko unibertsitate elebakarra behar dugula, euskaraz funtzionatuko duena”

Arrasate

Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE
Tel.: 943 71 25 11
Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasatepress@goiena.com

ZUZENDARIA
Iker Barandiaran

ERREDAKZIOA
Ubane Madera
Xabier Urzelai

MAKETAZIOA
Alex Azkarate

ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

PUBLIZITATEA
Arantzu Lagunilla
Izaskun Bolinaga
Natali Martínez
Imanol Elortza

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gaiñzarain
Ane Berezibar
Iratxe Bengoa

BANAKETA
Julen Aranguren

LEGE-GORDAILUA
SS-1124/88

ISSN
0214-4654

TIRADA
7.350 ale

ARRASATE PRESS / TXIRRITOLA • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jauriritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Arrasateko
Udala



Aramaioko
Udala

GUARDIAKO FARMAZIAK

- E JUBAKOITZA, 15**
Azkoaga, Ferrerías 1. 943 79 15 15
- ZAPATUA, 16**
Azkoaga, Iturriotz 33. 943 79 79 99
- DOMEKA, 17**
Corcuera, Maisu Aranbarri 1. 943 79 22 26
- ASTELEHENA, 18**
Irizar, Erguin 11. 943 79 12 39
- MARTITZENA, 19**
Amezua, Santa Marina 32. 943 79 09 74
- EGUAZTENA, 20**
Zabala, Zarugalde 42. 943 77 16 30
- EGUENA, 21**
Ruiz, Maala 31. 943 79 14 09

TELEFONO JAKINGARRIAK

- ERIETXEAK**
Arrasateko Eskualde Ospitalea. 943 03 53 00
Iguatorialdea. 943 71 26 91
Santa Agedako Ospitalea:
Gizonak. 943 79 39 00
Emakumeak. 943 79 44 11
Buru osasunerako etxea. 943 79 90 11
- LARRIALDIK**
SOS Deiak. 112
Gurutze Gorria. 943 76 55 76
DYA. 943 78 71 57

- ANBULATORIOAK**
Guardiako medikua. 943 46 11 11
Astelhehenetik
egubakoitzera. 17:00etatik 08:30era
Zapatuetan. 14:00etatik 08:30era
Asteburuetan eta jaiegunetan. egun osoa

- Arrasate**
Astelhehenetik
egubakoitzera. 08:00etatik 17:00etara
Zapatuetan. 09:00etatik 14:00etara
- Txanda hartzeko: medikuntza orok. eta pediatria 943 03 52 50
 - Espezialitateak. 943 03 53 11
 - Ikuskatzailea. 943 03 52 52
 - Kanpoko kontsultak. 943 03 53 11

- ANBULANTZIARIK**
Gipuzkoako Anbulantziak. 943 45 87 44

- ERTZAIINTZA**
Arrasate. 943 79 71 99

- SUHILTZAILERAK**
Udal taldea. 943 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaileburua. 943 79 20 72
Zubillagako Eskualde Parkea. 088

- MATXURAK**
Urak (Udal Zerbitzua). 943 79 09 00
Argindarra (Iberduero). 943 12 01 62
Gasa. 900 40 05 23
943 79 78 44

- GARRAIOAK**
Taxiak. 943 79 12 22
PESA. 902 10 12 10

- HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ETXEAK**
Iturbide egoitza. 943 79 72 11
Abaroa erretiratuen egoitza. 943 79 81 57

- MONTEIRON LIBURUTEGIA**
Monterron. 943 77 01 05

MEZAK

- | | |
|---|--|
| San Joan parrokia
Zapatua
19:00 (elebiduna) | San Andres eliza
Zapatua
19:00 (elebiduna) |
| Domeka
09:00 (gaztelaniaz)
11:00 meza nagusia (euskaraz)
12:30 (elebiduna) | Domeka
10:00 (elebiduna)
11:00 (euskaraz)
12:00 (gaztelaniaz)
13:00 (gaztelaniaz) |
| San Frantzisko eliza
Zapatua
19:00 (elebiduna) | Santa Teresa eliza
Zapatua
19:00 (elebiduna) |
| Domeka
09:00 (euskaraz)
10:00 (gaztelaniaz)
11:00 meza nagusia (euskaraz)
12:30 (gaztelaniaz)
19:00 (gaztelaniaz) | Domeka
11:00 San Isidron (euskaraz)
12:00 (gaztelaniaz) |
| Uribarri parrokia
Zapatua
19:00 (elebiduna) | Santa Marinako eliza
Jaiegun bezpera eta zapatua
19:00 (gaztelaniaz) |
| Domeka
11:30 (euskaraz)
12:30 (gaztelaniaz) | Domeka
12:00 (gaztelaniaz) |

OHARRAK

EHE-REN KALE BILKURAK
Gaur, 19:00etan, Seber Altuben, Euskal Herrian Euskaraz taldearen kale bilkura eta mural margo-tzea. Bihar, 12:00etan, eskualdeko manifestazioa, Bergarako plazatik.

EGUENETAKO ZINEKLUBA
Datorren egunean, martxoaren 21ean, 21:30ean, Amaia Udal Antzokian, *Intimidat* filma ikusi ahal izango da.

ENERGIA BERRIZTAGARRIAK
Datorren eguaztanean, martxoaren 20an, 19:00etan, Monterronen, energia berriztagarriei buruzko bideo emanaldia egingo dute. Gai beraren inguruko ikastaro tekniko ere prestatzen dabilta. Informazio gehiago 679 69 33 18 telefonoan.

FLAMENKO FUSIO KONTZERTUA
Bihar, gaueko hamabietan, Gambrinus garagardotegian flamenko fusioko Once Varas taldea arituko da. Sarrera doan izango da.

ARRASATE MUSIKAL
Gaur, 18:30ean, Arrasate Musikalen biolin eta perkusio ikasleen emanaldia. Bihar, berriz, Amaia Udal Antzokian, 19:30ean, Arrasate Musikaleko Banda, Eduardo Arzamendik zuzenduta.

AEDren AGENDA

AED-REN LAN-POLTSA
AEDk lan-poltsa zabaldu behar du. AEDn lan egin gura baduzu, bidali curriculum Pablo Uranga 6ra.

AED-REN AUZOLANDEGIAK
AEDk auzolandegiak antolatu gura ditu udan. Baionako AEK konpontzea dute helburu, eta lantaldea osatu gura dute.

URBANOEN ORDUTEGIA

- Gorostizatik Eroskira**
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.
- IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.
- Eroskitik Gorostizara**
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.
- IBILBIDEA: Eroski, Joan Bengoa, Santa Teresa, Cristo Obrero, Obenerreka, Makatzena, J.L. Iñarra, San Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

ORAINDELA 10URTEARRASATEN

Arrasateko Mertzedariek 100 urte egin zituzten 92an

Mertzedariek Arrasatera etorri zireneko ehugarren urteurren bete zuten 1992. urtean. Urteurren hori ospatzeko, hainbat ekitaldi antolatu zituzten euren ikastetxean: berbaldi sorta bat, umeez egindako antzerkia, hainbat jaialdi eta dantzaldi, meza eta kontzertua, besteak beste.



BERTAKO BERBAK/ Juan Martin Elexpuru

“Erkinddu”

Indarra galdu, eskaxtu.
—Porru landaria ondo etorri zan baiña aspaldixan ziero erkinddu da.
—Peru ziero erkindduta dago.



HAUGIROA!

MINIMOA Zapatua, 9	4 °C
MAXIMOA Martitzena, 12	20 °C
ASTEKO EURIA (l/m²)	9,8 l
	Max. Min. Euria
Eguaztena, 6	10 °C 7 °C 2 mm
Eguena, 7	12 °C 8 °C 7,6 mm
Egubakoitza, 8	16 °C 9 °C 0,2 mm
Zapatua, 9	12 °C 4 °C 1,8 mm
Domeka, 10	20 °C 7 °C —
Astelehena, 11	18 °C 7 °C —
Martitzena, 12	20 °C 9 °C —

San Juan auzoan jasotako datuak

ARRASATE IRRATIA FM 107.7



ASTEKO PROGRAMAZIOA

- ASTELEHENETIK EGUBAKOITZERA**
09:00 Albistegia
09:30 Igo autobusera
11:30 Albistegia
12:00 Musika
14:00 Errepikapena
- ASTELEHENA**
21:00 MIR
- MARTITZENA**
21:00 Hi bizi hadi
- EGUAZTENA**
21:00 Hitz eta pitz
22:00 Pottokatzen
- EGUENA**
21:00 Gailurretik/Mikelenea
- EGUBAKOITZA**
20:00 Azkenberri.com
21:00 Draxtor
22:00 In session
23:50 Asteko elkarrizketak
- ZAPATUA**
10:00 Musika klasikoa
11:00 Asteko elkarrizketak
23:00 Hitz eta Pitz (errep.)
24:00 MIR (errep.)
- DOMEKA**
11:00 Asteko elkarrizketak
23:00 Mikelenea

Nere Inda arrasatearra Boise-n

Nere Inda arrasatearra irakaste da Boise-n, eta harekin egin dugu bat aste honetan Idaho estatuko senatuan onartu berri duten 'Bieter proposamena' dela-eta. Zapatuan eta domekan, elkarrizketa hori entzuteko aukera izango da, 11:00etatik aurrera. Baina hori ez da elkarrizketa bakarrik izango: Patagonian ere izan gara, Eneka Guenetxea aretxabaletarraren eta Joxerra Ezkibel eskoriatzarraren eskutik. Bi mendizaleak eskalatzen izan ziren han.

Astelehenean eta martitzenean, zubia

Martxoaren 18an eta 19an Arrasate Irratiak ez du zuzeneko emanaldirik egingo. Hala ere, bi egun horietan, grabatutako elkarrizketak eskainiko dizkizuegu, goizeko bederatzietatik aurrera. Esate baterako, sagardotegien gaineko solasaldia; Hernani aldera joko dugu txanponaren bi aldeak ezagutzeko, sagardotegien alde onak eta txarrak. Bestalde, umeen pagak direla-eta, solasaldiek ere izango dute tartea astelehenean eta martitzenean.

ASTEABIHITZETAN

Ikerlan-Microsoft hitzarmena

Ikerlan enpresak lankidetzeta hitzarmena sinatu du Microsoft enpresarekin. Hitzarmen horren ondorioz, Ikerlanek Microsoft-en aurrerapen teknologikoak aplikatu ahal izango ditu industrian eta etxeko osagarrietan.

Microsoft enpresa liderra da softwareen garapenean. Ikerlanek, berriz, elektronika digitaleko osagarri ugari dituzten aparatuetan izugarritzko esperientzia du. Hortaz, aurrerantzean bi enpresa horiek batera egingo dute lan hainbat proiektutan.

Beste bonba mehatxu bat Arrasaten

Joan den egubakoitzean, aurreko eguaztenean bezala, bonba mehatxua izan zen Seber Altube plazako Central Hispano banketxean. Bonba mehatxuaren deia hamabiak eta laurdenetan jaso zuten SOS Deietan. Ertzaintzak, Seber Altube plaza ixteaz gain, Ignacio Zuloaga kaleko Central Hispanoren bulegoa ere hustu egin zuen.

Horrekin batera, Ignacio Zuloaga eta Pablo Uranga kaleko zirkulazioa bideratu egin zuen Ertzaintzak. Azkenean, zorionez, ez zen ezer gertatu.

Uribarrin aparkalekuekin arazoak

Arrasateko Erguin auzoa berrir urbanizatzeko proiektua onartu du Arrasateko Udalak. Horrela, Erguin auzoan izaten diren aparkatzeko arazoak saihestu egin nahi dira. Itxuraz, sekulako arazoak izaten dira auzo horretan aparkatzeko, eta askok automobila ezpaloi gainean aparkatzen dute, oinezkoen bidea oztopatuz.

Arrasateko Udalak arazo horri aurre egiteko garajeak egitea aurrez ikusi du. Oraingo asteotan, auzotarren iritziak jasoko dira. Ea jendeak interesik duen edo ez jakin nahi du Udalak, eta gero, emaitzak ikusita, eskaerak egin.



Emakumeen aldeko jarduerak herrian

Martxoaren 8a, Emakume Langilearen Nazioarteko Eguna, ospatzeko asmotan, Arrasateko emakumeek hainbat jarduera antolatu dituzte hilabete honetarako. Asteburuan, besteak beste, azoka egin zuten Seber Altube plazan. Al-Andalus kultura elkarteak ere hainbat ekitaldi egin zituen.



USTEAKUSTE/ Iker Barandiaran

Zerk arduratzen gaitu?

Aste honetan, bi kontu besterik ez dut entzun Aberaldietan: batetik, Realaren egoera kaskarra eta Toshack kalera bota izana. Eta bestetik, *Operación Triunfo* saioko zein parte hartzaile joango den Eurovisionera.

Operación Triunfo-ri buruz ez dut hitz egingo. Horretarako badaude zenbait aditu sustatu.com

foroan. Bestalde, hor dago *Confianza Ciega* azpi-produktua ere, eta aspaldian *Gran Hermano* berriaren mehatxupean gaude.

Egia esan, Euskal Herriko egoera latza kontuan hartuta, politikoa batik bat, harrizkoa da halako kontuekin zein erraz alienatzen garen (hori larregikoa da), entretenitu (hori normala da) baino gehiago. Berdin

digu atentatuak izaten diren gertatzen diren arte; berdin digu Garzon sasi-epaileak daukan impunitate lotsagabea. Telebistak eta futbolak agintzen digute agenda.

Futbolera bueltatuz, duela bizpahiru aste *Goienkaria*-n argitaratutako gutun bat etorri zait burura, Deba bailarako futbol taldea bultzatu nahi duena. Posible da, aukerak badaude, eta horrela gertuko taldea izango genuke zoriontzeko edo harekin haserretzeko.

ASTEKOIRUDIA



IKER BARANDIARAN

KOLEKTOREA EGITEKO LANEK HANKAZ GORA JARRI DITUZTE HERRIKO HAINBAT ZONALDE

Joan den aspaldian, herriko zenbait zonalde hankaz gora daude. Horren arrazoi nagusia da herriko ur zikinak batzeko kolektorea jartzeko lanak. Izan ere, une honetan, Musakola aldean gogor dabil-tza lanean. Horrez gain, San Andres inguruko lanak bukatzeaz daudela jakinarazi digute, eta azkenik,

Obenerreka auzoan kolektorearen inguruko lane-kin hasi berri dira. Etxe inguruan lanak izatea ino-rentzako erosoa ez bada ere, ziur behin kolektorea egin eta gero, Deba ibaiaren egoera kaskarra asko hobetuko dela, eta orokorrean, lan horiek gu guz-tion mesederako izango direla. /I.B.

UARKAPE LEHIAKETA


Uarkape jatetxean bi lagunendako bi afari irabazi gura badituzu, bete ezazu txartel hau eta sar ezazu ARRASATE PRESSko sarreran egongo den kutxan (Otalora Lizentziaduna 31).

Zozketa apirilaren 10ean (eguztana) egingo dute Arrasate Irratiko Igo Autobusera saioan.

Izena..... Abizenak.....
Helbidea..... Telefonoa.....

* Afariaren xehetasunak: astelehenetik eguenera, Uarkape jatetxearen eskaintzaren arabera afaria izango da. Ez da fotokopiarik onartuko.

UARKAPE JATETXEA



ASTELEHENETIK ZAPATURA
EGUNEKO MENUA
PLATER KONBINATUAK
BOKATAK

ELKARRIZKETA

JOKIN LETONA/IMPORT ARRASATEKO PRODUKTU ARDURADUNA

“Ternuak arrantzaleek erabil dezaketan sistema egin du, haiekin lankidetzan”

IKER BARANDIARAN

Ternuako lantaldeak itsasorako segurtasun sistemadun jantzi aitzindaria diseinatu du, eta Jokin Letona arrasatearra produktua arduradunetako bat da. Bestalde, Munich-eko azoka garrantzitsu baten saria jaso dute.

Zelan sortu zen jantzi hori egiteko ideia?

Jaurlaritzak arrantzaleen segurtasun neurriak handitzeko beharra ikusi zuen. Horrela, ekimen hori bultzatu eta laguntzeko asmotan, Jaurlaritzak AZTira (Arrantzarekiko Zientzi eta Teknologia Irakunde) jo zuen. Eta AZTI gurekin harremanetan jarri zen, guk halako produktu bat sortzeko. Iaz, otsailan, izan zen hori, eta Ternuak, arrantzaleekin eta kofradiekin lankidetzan eta Jaurlaritzari esker, arrantzaleek erabil dezaketan sistema garatu du dagoneko.

Eta zein berezitasun dauka sortu duzuen jantzi horrek?

Jantziaren berezitasun nagusia da arropa eta segurtasun sistema batzen dituela. Salbamendu-jaka darama, baina garrantzitsuena da jaka hori petoari lotuta doala. Arrantzaleek peto hori beti daramatenez jantzita, segurtasun neurria beti izango dute gainean eta oneoro seguru egongo dira. Gainera, jakak hauspo sistema dauka, eta arrantzalea uretara jausiz gero, automatikoki txalekoa aktibatu eta puztu egingo da, eta lauzpabost segundoan bolumen osoa hartuko du. Jakak bere barruan espazioa ere handitu egiten du.

Segurtasunaz gain, jantzi horrek beste berezitasun batzuk ere badauzka, ezta?

Bai, segurtasuna eskaintzearekin batera, erosotasuna ere kontuan hartu dugu. Arropa horiek ehun teknikoarekin egi-



IKER BARANDIARAN

“Jaurlaritzak arrantzaleen segurtasuna handitu nahi zuelako egin dugu”

nak daude (itsas ekintzetarako Gore-Tex[®] bereziarekin), eta gorpuzten hezetasuna kanporatzen laguntzen dute.

“Munich-eko Ispo Winter 02 azokako epaimahaiak arrantzale jantzi berria saritu zuen”

Zelakoa izan da prozedura? Zelan diseinatu duzue?
Segurtasun sistema beti gainean edukiko zuen jantzi bat

“Arrantzale euskaldunendako egin dugu, baina Galizia eta Irlanda ere hor daude”

eskatu ziguten. Era berean, iragazgaitza izan behar zen, eta transpiratu ere egin behar zuen, eta prototipoak egiten hasi ginen.

Eta zeintzuk izan dira zailtasun nagusienak?

Gaitzena jakaren hauspo sistema moldatzea izan da. Tartean, AZTIkoek eta arrantzaleekin hainbat froga egin dituzte. Gainera, jantzi hori homologatu dago, eta horretarako Europako araudiak bete behar ditu. Horretarako ere lan handia egin behar izan dugu, aldi berean jantzi osoa izatea ere gura genuelako.

Zein lantalde ibili zarete horretan?

Azken baten, enpresa osoan lan horrek oso dimentsio handia hartu duela. Arrantzaleekin ere harreman estua izan dugu. Etengabe euren beharrak azaltzen eta prototipoak frogatzen ibili dira.

Zelako frogak egin dituzte?

Lehenengo frogak Arrasateko kiroldegiko igerilekuan egin genituen, eta gero, itsasorako. Horrez gain, jantziak homologatzeko laborategi espezializatuetan frogak egin dituzte, baita berritzaileen ohikoak ere.

Munich-eko Ispo Winter 02 azokan saria jaso duzue...

Azoka horretara gure marka eta produktuak erakustera joan garen lehen aldia izan da, eta nazioarteko 65 enpresaren artean, arrantzaleendako jantzi berria eta jantziaren segurtasun sistema saritu zituzten. Epaimahaiak ezinbesteko salbamendu sistema zela esan zuen, eta erabiltzeko oso erraza dela azpimarratu zuen.

Zelako irteera eman nahi diozue jantziari?

Sistema hori euskal arrantzaleendako egin dugu, eta arrantzaleen kofradiekin banatuko dugu. Edozelan ere, sistema ona eta egokia dela ikusi dugu, eta horren ondorioz, itsasoko kirolekin aplikatu daitekeela ikusi dugu. Bestalde, Galizia eta Irlanda aldi berean gobernuekin ere harremanetan jarri gara sistema hau ezagutzera emateko.

M
MEMESA
Industria hornidurak
Tel. 943 71 24 25

Lore
• Lurrindegia
• Kabina
• Fotodepilazioa
Olarte kalea, 10
Tel.: 943 79 52 50

ARRASATE HOTELA
Biteri, 1
Tel.: 943 79 14 16
ARRASATE

HIES BERRI
Tel.: 943 79 26 99

TTUKUN
• Fotokopiak
• Liburu josteak
• Fotokopiak koloretan
• Planoen kopia
• Offset-a
Ferrerias, 23 • ARRASATE
Tel.: 943 79 46 62


Arrasateko Industria Museoa azken erabakien zain dago

UBANE MADERA

Arrasateko Industria Museoa-ren proiektua eginda dago, baita maketa ere. Zazpi milioi euro pasatxo behar dira egiteko. Hortaz, orain, Udalararen oniritzia jasotzeko zain dago proiektua; eta jakina, behar den dirutza lortzeko bideak aztertzen ari dira.

Atzo, eguena, batzarra izan zuen Udaleko Enplegu eta Garapen Ekonomiko batzordeak. Eta besteak beste, Industria Museoa izan zuen berbagai. Jakina, albiste hau idaztean, batzarra egin barik zegoen oraindik, hortaz, ez dugu jakiterik zein erabaki hartu duen batzorde horrek.

Baina Enplegu eta Garapen Ekonomikoko batzordeburu Juan Ramon Garaik adierazi digunez, Industria Museoa egiteko behar diren zazpi milioi euro baino gehiago (1.240 milioi pezeta) lortzeko bideak aztertu behar zituzten atzoko batzarrean. Izan ere, erakunde publikoetara jotzeaz gain, erakunde pribatuetara ere jotzeko proposamena egin dute. Enpresarekin lotutako erakundeak ditu buruan Udalak: Mondragon Unibertsitatea, Garaia,



Industria Museoaren maketa, Peña Gantxegi Arkitektoek egindakoa.

Fagor, eta horrelako ekimen pribatuak, alegia. Hau da, eurei ere Industria Museoa eraikitzeko dirua eskatu edo ez erabaki behar zuten atzoko batzarrean. Baina horretarako, Udalak ere diru zati handia ipini beharko du. Eta diru kopuru hori ere zehaztu beharra dago oraindik. Edozelan ere, bien bitartean, Industria Museoaren proiektua eginda dago. Are gehiago, Donostiako Peña Gantxegi

Arkitektoek Industria Museoa izan daitekeenaren maketa ere egin dute. Xabier Zubizarreta alkateak GOTBn adierazi zenez, "Museoaren proiektua ona da, eta nahiko ondo asmatuta dagoela uste dut. Alkateak honakoa gaineratu zuen: "Museoa baino zerbait gehiago izango da Arrasateko Industria Museoa". Hortaz, orain, azkeneko erabakien zain dago proiektua.

LABUR

Hizkuntza eskubideen eta ofizialtasunaren aldeko mobilizazioak iragarri ditu EHEk

Euskal Herrian Euskaraz taldeak "hizkuntza eskubideak eta ofizialtasuna" aldarrikatze mobilizazioak antolatu ditu, hizkuntza eskubideen bermea eskatzeko. Horrela, batetik, martxoaren 22an, Seber Altuben bilkura izango da eta muralak margotuko dituzte, 19:00etatik aurrera. Bestetik, hurrengo egunean, martxoaren 23an, manifestazioa izango da Bergaran. Manifestazio hori plazatik abiatuko da, 12:00etan.

EHE elkarteak salatu duenez, "hizkuntza eskubideen urraketan sistematikoa euskalgintzan ez ezik, gizartearen ere hedatuta dagoen errealitate bat da. Egun Euskal Herria zatitzen duten marko juridiko-politikoaren mugak eta topeak gero eta nabarmenagoak direla esan dezakegu". Hori dela eta, EHEk uste du "euskararen etorkizunak euskararen lurralde osoa hartuko duen estatus juridiko-politiko baten beharra agerian uzten du".

Emakume Langilearen Nazioarteko Eguna ospatzeko egitarauak aurrera segitzen dute

Joan den astean hasi ziren Arrasaten Emakume Langilearen Nazioarteko Eguna ospatzeko ekitaldiak. Egubakoitzean, manifestazioa izan zen, zapatuan, Emakumeen Azoka eta bertso saioa eta domekan, berriz, antzerkia. Ekitaldiek oraingo astean izan dute jarraipena. Hain justu, martitzenean, emakumeen kontrako indarkeria izan zuen berbagai Pilar Yoldi hizlariak Udaleko osoko bilkuren aretoan. Atzo, eguena, berriz, *El voto es secreto* filma eman zuten zineklubean.

Datorren egunean izango da hurrengo ekitaldia: 15:30ean, Virginia Imaz aktoreak antzezlan taularatuko du Amai Udal Antzokian. Eta 21:30ean, berriz, *Intimidación* filma emango dute Udaleko osoko bilkuren aretoan.

Eta ospakizunekin bukatzeko, Aste Santuaren ondoren, apirilaren 9an, hain zuzen, *Euskal Herriko Sorginak* izeneko hitzaldia egingo du Alizia Stürtze historialariak. Osoko bilkuren aretoan izango da hitzaldi hori, 19:00etatik aurrera.

Gurasoak seme-alabekin hobeto konpontzen laguntzeko eskolak

UBANE MADERA


Bi urtetik hasi eta 18 urtera arteko gazteen gurasoek hezkuntza aukera berezi bat izango dute datorren apirilatik aurrera. Gurasoen eta seme-alaben arteko harremana hobetzen laguntzea da helburua. Drogamenpekotasuna landuko dute, besteak beste.

Seme-alabekin hobeto moldatzen laguntzeko, gurasoendako eskolak emango dituzte. Helburua da gurasoen kezka eta ardurak argitzeko gune bat sortzea, gurasoendako informazio gune bat: umei zer egiten utzi, zer debekatu, alkohola, drogak, seme-alabekin komunikazioa lantzea... Oro har, hausnarketa-gunea izango dela adierazi digu Jone Beitialarrangoitiak, Gizarte Zerbitzuetako prebentzio teknikariak.

Hori guztia oinarritzat hartuta, ikastetxe guztien eta Guraso Elkartearen artean antolatutako topaketak izango dira apirilean. Izan ere, "gure seme-alaben etorkizun osasuntsurako ezinbestekoa da gurasoen inplikazioa".

TALDE BI

Talde bitan banatuko dituzte gurasoak: lehenengo taldean bi urtetik hasi eta 12 urterainoko



UBANE MADERA

Drogak, alkohola eta antzeko gaiak izango dira berbagai gurasoen eskoletan.

neska-mutikoen gurasoak izango dira. Bereziki, Psikologia Ebolutiboarekin lotutako gaiak landuko dituzte: zelan landu seme-alaben autoestima, gurasoen eta seme-alaben arteko komunikazioa zelan hobetu...

Talde horrek apirilaren 11n hasiko ditu eskolak. Denetara bederatzi saio izango dituzte, eguenero, 18:00etatik 19:30era, Monterronen.

Bigarren taldean, berriz, 12 eta 18 urte arteko nerabeen gurasoak izango dira. Eta beste taldeak

landutako gaiekin batera, gai zehatzagoak ere landuko dituzte: drogamenpekotasuna, prebentzioa, gurasoek zein jarrera duten etxean... Apirilaren 8an hasiko dituzte eskolak. Guztira hamar saio izango dituzte, astelehenero, 18:00etatik 19:30era, Monterron jauregian.

Eskola horietan parte hartu gura duenak lehenbailehen eman beharko du izena Udaleko Gizarte Zerbitzuetan; edo bestela, Udaleko telefonora deitu beharko du, 943 79 09 00 zenbakira.



Euskararen alde diru dezente batu dute

Hasi dira euskararen alde dirua batzeko ipinitako itsulapikoak batzen. Azkeneko pezetak eta lehenengo euroak batzeko ipini zituzten. Hain justu, 50 bat herri osoan. Oraingo astean, Musakolan ipinitakoak batzen hasi dira. Gero, Kontseiluari bidaliko diote dirua. AEDko idazkari nagusi Ander Elortondok adierazi digunez, "ikusten da jendeak euskararen alde dirua emateko jarrera duela, bereziki eguneroko erosketak egiten diren dendetan". Eta gaineratu du eskatzen duten saltokietan edo diru gehien batu diren berritako ipiniko dituztela. /U.M.

Ikuskizun eta jolas ekintzetarako diren lokalen segurtasuna aztergai

UBANE MADERA

Ikuskizunetarako, ekintzetarako eta jolas ekintzetarako diren lokalen segurtasunaren azterketekin segituko du Udalak. Hain justu, hirugarren aldiarekin hasiko da. Horren barruan, herriko 73 lokal ikuskatuko dituzte, gehienak tabernak eta elkarteak.

1999. urtean hasi zen Udala herriko lokal publikoen segurtasun neurriak aztertu eta zaintzen. Oro har, lokalaren egituraren gogortasuna, arrisku egoeretan lokaletik irteteko bideak eta larrialdi plana, suteetatik babes-teko neurriak eta eraikuntza elektrikoak, aztertzen dituzte. Bait ere lokalak segururik duen, ondo intsonorizatuta dagoen eta legea betetzen duen edo ez.

Plan horren lehenengo aldian, herriko kirolguneak (Iturripeko kiroldegia, Obenerrekako pilotalekua, Olarangoko pilotalekua, Zaldibarkoa eta Makatzenakoa) Monterron jauregia eta Alai zinema. Horrekin batera, gazte txokoak, Harresi aretoa eta Santa Marinako liburutegia ere ikuskatu zituzten. Bigarren aldian, berriz, Ostarku eta Eliptica dantzalekuak eta



Herriko 73 lokal ikuskatuko dituzte, gehienak tabernak eta elkarteak.

hiru taberna ikuskatu zituzten. Iaz egin zuten hori.

HIRUGARREN ALDIA

Eta orain, hirugarren aldiari ekingo diote. Herrian ikuskatu barik geratzen diren lokal guztien %50 ikuskatuko dituzte. Beti ere, jendeak erabiltzen dituen lokalak badira, ikuskizun eta jolas ekintzetarako lokalak, alegia.

Guztira 73 lokal izango dira, gehienak tabernak, elkarteak eta

jatetxeak. Adibidez, Leintze, Udalpe, Alkartu, Batzokia eta Montxon elkarteak; eta Rumba, Itzala, Biona, Zuk Nahi eta Plus Ultra tabernak. LM 2000 Ingenieros enpresak egingo du lana ia 25.000 euroren truke (lau milioi pezeta pasatxo). Aurrez ikusitakoaren arabera, zortzi hilabete izango ditu lanok egiteko.

Eta behin bukatuta, laugarren eta azken aldia faltako da herriko lokal guztiak ikuskatuta egoteko.

Udaltzaingoko lantaldea handitu guran, lan-poltsa sortuko du Udalak

UBANE MADERA

Hogeita zortzi udaltzainez osatutako lantaldea lortu gura du Udalak herriko Udaltzaingorako. Horrela, inolako arazo barik bete ahal izango dituzte herrian dauden beharrak, Udalak ezarri gura duen gaueko txanda barne. Horren harira, dagoeneko lau udaltzaïn kontratatu ditu Udalak; bi berriak dira, eta oraingo astean hasi dira lanean. Beste biak lehendik zebiltzan lanean, aldi baterako, eta orain, udaltzain lan-

postu finkoa atera dute. Baina, lau horiez gain, udaltzain gehiago behar dira herrian, hamaika gehiago, hain justu. Eta, jakina, hamaika horiek kontratatu artean, norbaitek bete beharko du egin beharreko lana. Hori dela-eta, Udalak erabaki du beste hamar bat udaltzain hartzeko lan deia egitea. Lan-poltsa sortuko du horrela, beharrezkoak diren funtzionarioen postuak betetzen diren bitartean edo lan-premiak bereziak direnean, udaltzain gutxiagirekin ez egoteko.

Gainera, Udalak premiazkoa du lan-poltsa osatzea, hortaz, hamar udaltzainen aukeraketa prozesua ere azkarra izango da. Horren ondorioz, interesa duenak ere lehenbailehen eman beharko du izena Udalean. Hori bai, gogoratu lanpostu horiek behin-behinekoak izango direla.

PRESTAKUNTZA

Bestalde, langile gehiago hartzeaz gain, prestakuntza berezia ere izango dute udaltzainek. Orain, ikastaroak egiteko zain daude.

Globalizazioaren kontrako ekitaldietara joateko autobusa

UBANE MADERA

Gaur hasita, bihar arte, Europako Batasunaren gailurra egiten ari dira Bartzelonan. Hori dela-eta, eta bestetan egin izan den moduan, globalizazioaren kontrako ekimen ugari izango dira. Horren harira, Arrasatetik hara joateko autobusa antolatuko du ESK sindikatuak. Hain justu, biharko

manifestazioarekin bat egitea gura dute. Zapatuan bertan irten-go da autobusa, 07:15ean, Gari-baiko autobus geltokitik. Itzule-ra manifestazioa bukatutakoan izango da, 22:00ak aldera, Bartzelonatik. Interesa duenak Jai Zale tabernan eman beharko du izena; edo 943 79 92 43 telefonora deitu. Langabeendako doan izango da autobusa.

ESKren ustetan, "80ko hamarkadatik hona, Europako Batasuna talde ekonomikotzarren interesak indartzeko helburuaz, politika ekonomiko neoliberala gauzatzen ari da. Helburuak interes horien ingurukoak izan dira: 80an izan zen merkataritzaren liberalizazioa, Egonkortasun Ituna eta 90eko hamarkadako kapitalen mugikortasuna".

LABUR

Energia berriztagarriak lantzeko ikastaroa izango da apiriletik uztaiera arte

Energia berriztagarrien gaineko ikastaroa izango da, apiriletik uztaiera arte. Hain justu, 100 orduko ikastaroa izango da, lau modulutan banatuta. Modulu bakoitzean, asko jota, 20 lagun izango dira. Irakasleak, berriz, Felipe Uriarte, Jabi Baztan, Iratxe Kor, ekain Taldea eta La TIA izango dira. Horrela, adibidez, lehenengo moduluan oinarriko elektrizitatea eta elektrizitatearen aplikazioak izango dira berbaigai; bigarrenean, instalazio elektrikoak hirugarrenean sare konexioa, ibilgailu elektrikoak eta airezko muntaketa eta azkenengoan sorgailu, alternadore eta dinamoak.


Segiko kideen kartzelaratzegatik protestak eta kale istiluak izan ziren Arrasaten

Segiko hamaika kideren kartzelaratzegatik agindua dela-eta, horien kontra protestatzeko manifestazioa egin zuten zenbait herritarrek Arrasaten martitzen.

Manifestazioa bukatu eta apurtxo bat geroago, 20:45 inguruan kaputxadun batzuek Arbolapetako telefono-kabina apurtu egin zuten, edukiontzia errepidera ateratu zituzten eta autoen zirkulazioa eten egin zuten. Ordu erdi inguruz edukiontzia zirkulazioa eteten izan ziren, Ertzaintzak handik kendu zituen arte. Era berean, Batzokiko leihotako kristalak ere apurtu zituzten.

Sonografoen emaitzengatik ipinitako isuna %25 jaitsiko die Udalak lau tabernari

Arrogoi, Gure Leku, Branka eta Doke (lehenengo jabeari) taberna isunak ipini ziren Udalak sonografoek jasotako emaitzen ondorioz. Orain, isun horiek %25 jaitsiko die erabaki du Udalak, bi arrozoi nagusirengatik: batetik, taberna horiek ez dutelako aurrekariarik; eta bestetik, sonografoak epe luzean ipinita egon zirenez, isunak ere dezente handiak direlako. Era berean, Udalak erabaki du hemendik aurrera sonografoak hilabetez egongo direla tabernetan ipinita, eta ez hiru hilabetez, orain arte moduan.




Elkarriren ekitaldian eskubideak berbaigai

Elkarrik antolatuta, alderdien arteko mahai-ingurua izan zen martitzen. Guztiak zeuden gonbidatuta, baina, EB, EA, EAJ eta Batasuneko ordezkariak bakarrik izan ziren. Oro har, EBko kideak esan zuen bizitzeko eskubidea eta gizarteak erabakitzearen eskubidea onartzea elkarriketa politikorako ezinbestekoa dela. EAJko kideak giza eskubideak aldarrikatu zituzten, eta bizitzeko eskubidea nabarmendu. Gauza bera egin zuen EAJk, eta indarkeria gaitzetsi behar dela gaineratu zuen. Batasunekoaren ustez, eskubide guztiak guztiendako beharko lirateke.



URREZKO EZTEIAK

1952ko otsailaren 23an, Milagros Marco, Juana Marco eta Conchita Marco ahizpak ezkondu egin ziren. Egunero ez dira hiru ahizpa batera ezkontzen, eta hiru hauek egun esanguratsu hori batera bizi izan zuten. Ezkerreko bikotea Pedro González eta Milagros Marco dira. Erdikoa Alberto Lejarraga eta Juana Marco, eta eskuineko bikotea Tomas Sánchez eta Conchita Marco. Ziur ez dutela egun hori erraz ahaztuko. Orain, berriz, berrogeita hamar urte geroago, urrezko ezteiak ospatu dituzte.



EUSKO JAURLARITZAKO LANGILEEN BISITA

Gurean gauza bat argi dago: komunikabide bat ezagutu nahi duenak hiru dauzka hemen eskura. Hori dela eta, sarri izaten ditugu bisitaldiak. Azkeneko bisitan, Eusko Jaurlaritzako langileak izan ziren gurean. Arrasate Irratia,

ARRASATE PRESS eta Goiena Telebista zelakoak diren ikusten izan ziren. Eusko Jaurlaritzako langileak Ika euskaltegian ari dira euskara hobetzen, eta gugana etorri aurretik Oñatiko barnetegi baten izan ziren, astebetez. Ezin esan gaizki bizi direnik.



GAZTETXEKOEK, TXOTX !

Joan den astean, sagardotegietan izandako hainbat koadrila azaldu ziren atal honetan, eta oraingoan, Arrasateko gaztetxekoei tokatu zaie. Bazkaria Astigarragako sagardotegi baten egin zuten, eta gero, parrandarako denbora ere izan zuten. Egun pasa polita, baina zapatuero egiteko, larregi. Batez ere, gibelak egin behar duen lan estragatik.



Kenci Arrasateko entrenatzaile Iker Zubiriak, aspaldian ez bezala, jokalariz guztiak izan zituen eskura.

OXEL EROSTARRE

SASKIBALOIA

Kenci Arrasatek 86-67 irabazi zion Leioako Askartza taldeari Iturripen

Oraingo asteburuan, arrasatearrek AXA Getxo taldearen kontra neurtuko dituzte indarrak

XABIER URZELAI

Joan den zapatuan, Kenci Arrasatek garaipen garrantzitsua erdietsi zuen Iturripen. Bizkaitarrek ez zituzten gauzak erraz jarri, baina arrasatearrek hasieratik nagusi izan ziren. Helburu bat bete dute: azkenak ez izatea, hain zuzen ere.

Arrasateko saskibaloia taldea azkeneko postua atzean utzita abiatuko da oraingo asteburuan Getxo aldera. Beste behin, Iturripen jokatzeko dutenean talde gehienei irabazteko gai direla

erakutsi zuten arrasatearrek, eta, igoera fasean diharduten Gipuzkoako taldeen artean, lehenak izaten ahaleginduko dira.

MARKAGAILUAN AURRETIK

Joan den zapatuko partidua gaitza izango zen itxura zeukan; izan ere, Bizkaiko Askartza taldeak esperientzia handiko jokalaririk ditu, eta asko protestatzen duen talde horietakoa da, epaileak urduri jartzeko-edo.

Arrasatearrek azkar jokatzeko ahalegindu ziren, baina kanpotarrek faltekin eta protestekin erritmoa geldotzen ahalegindu

ziren, baita asmatu ere. Hala ere, Kenci Arrasatek hasiera-hasieratik aurre hartzea lortu zuen, eta alde polita lortu eta gero, partidua amaiera arte alde horri eutsi egin zituen.

Etxeko entrenatzaileak, behingoz, jokalariz guztiak izan zituen eskura. Arrasatearrek partiduan hainbat jokaldi ikusgarri egin zituzten, baina gura baino huts gehiago ere bai, eta hori da Arrasateko taldeak hobetu behar duen gauzetako bat. Oraingo zapatuan, etxekoek beste erronka bat izango dute: bi partidua segidan irabaztea, hain zuzen ere.

Mondra taldeak bolada bikainari agur esan dio, Orion 2-0 galduta

XABIER URZELAI

Arrasateko Mondra futbol taldeak ezin izan zuen hamahirugarren astez galdu barik jarraitu, Orion jokatuako partiduan etxekoak 2-0 nagusitu ziren-eta. Porrot horrekin arrasatearrek atzerapausoa egin dute, eta liderra beder

ratzi puntura dago orain. Orion jokatuako partiduan arrasatearrek ez zituen eutsi azken asteotan erakutsitako mailari, eta partidua benetan txarra izan zen. Oriok bigarren zatian egin zituen golak. Etxean jokatzeko zuten askoz hobeto jokatu, baina eduki zituzten gol aukerak hobe-

to aprobetxatu zituzten.

Oraingo asteburuan, arrasatearrek hil edo biziko partidua jokatu dute, Zumaiako taldearen kontra. Gauzak okertu egin dira, baina oraindik badago zer egin. Hala ere, Zumaiakori irabazteaz gain, goikoek ahalik eta azkarren kale egitea komeni da.

Errugbian, Arrasate eta Eibar izango dira nor baino nor

XABIER URZELAI

Zapatuan, errugbia gustuko dutenek aukera ona izango dute kirol horretaz gozatzeko. Arrasateko taldeak Eibar taldearen bisita izango du, eta goiko postuei eusteko lehian arituko dira talde biak. Hitzordua, lauretan, Garagartzan.

Arrasateko Errugbi Taldeak joan den asteko partidua erraz irabazi zuen, baina oraingo asteburuan gauzak bestelakoak izango dira. Joan den asteko aurkaria, Sestaotako taldea, sailkapeneko azken postuan dago, eta arrasatearren kontra jokatuako partiduan argi geratu zen bizkaitarrek ez daukatela batere talde sendorik.

Arrasateko taldea 6-34 nagusitu zen Sestaoren zelaian. Bizkaitarrek, nahiz eta etxean jokatu, ez zuten ezer erakutsi, eta mondragoetarrek gura bezala jokatu zuten. Partidu hasieratik


arrasatearrek aurre hartu zuten, eta Patxiren mutilek erraz jokatu zuten. Partidu samurra izan zen, joko bizikoa. Jeneralean partidua gogorrak izaten dira, baina aurreko astean ez zen horrela izan.

Bigarren zatian gauzak ez ziren askorik aldatu, eta etxean jokatzeko zutenek, estutu beharrean, defenditzen jardun zuten. Horrela, arrasatearrek markagailuko aldea handitu besterik ez zuten egin.

BIHAR BESTE KONTU BAT IZANGO DA Arrasateko Errugbi Taldeak bihar jokatu duen partiduan beste neurri bateko aurkaria izango du aurrez aurre.

Eibar taldea Arrasatearekin batera goiko postuetan dago, baina eibartarrak, gutxiagatik bada ere, aurretik dira. Zapatuko partidua gogorra izango da, segurua. Joko gutxikoa, baina ikusgarria; hau da, ez galtzeko modukoa.

FOTOKIROLA



Isidor Ugarte, Espainiako karate proban

Isidor Ugarte karateka arrasatearra oraingo asteburuan Madrilin jokatu duen Espainiako Karate Txapelketan parte hartuko du. Arrasatearra Euskadiko Selekzioarekin arituko da, bai bakarka baita taldeka ere. Isidor Ugarte *kumite* modalitatean arituko da, eta bakarka 70 kilo azpiko karatekekin neurtuko ditu indarrak. Arrasatearra argi dauka Madrilin oso maila altuko kirolarien kontra arituko dela; besteak beste, munduko txapeldun Oscar Vazquézen kontra. Animo!


Babeslea

SPORTLAND
FORUM SHOPS

www.forumsport.com

KIROLA ZEURE ESKURA

Garihai Etorbidea, 2-6. Arrasate



Arrasateko gazte mailako Zuazua eta Agirre Eskoriatzako bikotearekin, eguazteneko partiduan.

XABIER URZELAI

PILOTA Pilotari mondragoetarrak, herri arteko txapelketaren zain

Gazte mailakoek Debarroko Txapelketako finalerdietara pasatzeko aukera galdu zuten

XABIER URZELAI

Eguaztanean Eskoriatzan jokatu eta gero, Arrasateko pilotariak agur esan diote aurtengo Debarroko Txapelketari. Finalerdietara pasatzeko aukera gazte mailako pilotariak zuten, baina Eskoriatzako bikoteak ez zuen barkatu.

Lehenengo partiduan kadete mailako pilotariak izan ziren. Jiménez eta Gozalo arrasatearrek Asperen eta Izagirrenen kontra jokatu zuten, eta azken horiek erraz irabazi zuten.

Aspe arrasatearra da, baina Eskoriatzako taldean jokatzen du, eta "berak bakarrik" irabazi zuen partidua. Atzelariak ez zuen lan handirik izan, eta arrasatearrek ezin izan zuten gazte horren

indarraren kontra ezer egin. Mondragoeko pilotariak 22-5 galdu zuten. Badirudi Aspe pilotariak herri arteko pilota txapelketa talde arrasatearrek jokatu duela. Argi dago fitxaketa ona izango litzatekeela.

GAZTE MAILAKOAK EZ ZIREN SAILKATU
Gazte mailan Zuazua eta Agirre aritu ziren Eskoriatzako pilotarien aurka, eta partidua horretan Debarroko Txapelketako finalerdietara pasatzeko txartela zegoen jokoan. Kadeteek 22-5 galdu zuten, eta gazte mailakoek ere emaitza bera izan zuten, 22-5, eskoriatzarren alde. Bikote eskoriatzarrek hasiera-hasieratik aurre hartu zuen, eta horrez gain, berehala handitu zuten aldea. Eskoriatzako Errartek indar handia daukala argi erakutsi zuten,

Arrasateko Agirrek atzeko koadroetatik jokatu behar izan zituen eta pilota asko. Emaitza horrekin, gazte mailakoak ere txapelketatik kanpo geratu dira.

Senior mailako pilotariak ez zeukaten ezer jokoan, baina partidua bat ere irabazi barik etxera bueltatzea ez da inoren gustuko izaten. Arrasatearrek 12-22 nagusitu ziren, eta partiduan hainbat tanto ikusgarri izan ziren. Zugastik eta Errastik ez zuten lan handirik egin behar izan Eskoriatzako Grazia eta Herrarte mendean hartzeko.

Oraindik Udaberri Txapelketako bi partidua jokatu behar dituzte arrasatearrek, baina ez dago ezer jokoan. Bitartean, Aste Santu ondoren hasiko den herri arteko txapelketaren zain egon beharko dira.

FUTBOLA

Emakumezkoen Mondra taldeak laugarren postuan amaitu du Liga txapelketa

Joan den astean, Ligako azken partidua jokatu zuten arrasatearrek, Mutriku taldearen kontra, eta Arrasateko taldeak 1-5 galdu zuen liderraren aurka. Arrasatearrek igoera fasea jokatuko dute, baina lehenengo partidurako ez dute zorte handirik izan; izan ere, Arrasateko neskek, berriro, Mutrikuren kontra neurtu beharko dituzte indarrak zapatuan. Hortaz, partidua gaitza.

FOTOKIROLA



Herri kirolak Musakolako kiroldegian

Martitzen goizean, Musakolako kiroldegian herri kirolak izan ziren. Kiroldegia txiki geratu zen; izan ere, Arrasateko, Aretxabaletako eta Bergarako neska-mutikoak izan ziren herri kirol jardunaldian parte hartzen. Guztira 300 bat gazte izan ziren, eta 23 taldetan banatuta hainbat herri kirol egin zituzten; sokatira, txingak, soka lasterketa, lokatzak, eta abar. Martitzeneko jardunaldiarekin amaiera eman zitzaion Debagoienean egin diren pilota eta herri kirol topaketei. Antolatzaileak oso pozik geratu dira aurtengo topaketekin. /X.U.



LASAGABASTER

www.lasagabaster.com

AGR Arrasatek ezin izan zuen Bergara taldea mendean hartu

XABIER URZELAI

Arrasateko eskubaloitza taldeak, AGR Arrasatek, ezin izan zuen liderraren kontrako partidua irabazi, eta garaipen horrekin Bergara Gipuzkoako Ligako txapelduna da. Partidua ikusgarria izan zen, eta derbi-rako Bergara aldetik ere hainbat jarraitzaile etorri ziren. Azkenean, Bergara txapeldun!

Domeka eguerdian AGR Arrasate eta Bergara taldeak jokatu zuten derbian oso argi zegoen gauza bat: arrasatearrek ez zeukatela ezer jokoan, eta bergararrek, aldiz, txapelketa osoa. Hala ere, argi zegoen partidua interesgarria izango zela eta iragarpenek ez zuten kalerik egin.

LEHENENGO ZATI PAREKATUA

Lehenengo zatian bi taldeak gogotsu kantaratu ziren eta inork ez zuen nagusitasun argirik erakutsi. Bi taldeek huts asko egin zituzten, eta ezin esan joko ona izan zenik. Ia lehen zati osoan arrasatearrak izan ziren aurretik, baina alde txikiarekin. Atsedendira heldu baino bost minutu lehenago, bergararrak, partidua berdintzeaz gain, aurre ere hartu zuten. Atsedendian, 9-11



JULEN IRIONDO

AGR Arrasate taldeak ezin izan zuen Bergararren jaia zapuztu.

erakusten zuen markagailuak, bergararren alde.

BIGARREN ZATIAN, BERGARAK GORA

Bigarren zatiko lehenengo hamabost minutuetan gauzek berdin jarraitu zuten. Momentu oro Bergarako taldea zen aurretik, baina alde txikiarekin. Partiduaren azken ordu eta laurdenean, ostera, gauzak dezente aldatu ziren. Bergara hobeto jokatzeko hasi zen, eta haien atezainak hainbat gel-

ditu bikain egin zituen. Horrekin batera, Arrasatekoen jokoak behera egin zuen, eta Bergarak markagailuko aldea handitu egin zuen.

Arrasateko taldeak azken minutuetan ezin izan zuen bergararren aldea murriztu, eta bergararrak zazpi goleko aldearekin nagusitu ziren: 21-28. Bergararrek, derbia irabazteaz gain, Gipuzkoako Liga ere eskuratu zuten. Zorionak mahoneroei!

FOTOKIROLA



Domekan, eguraldia lagun, bike-trial proba jokatu zen Udalan

Domekan, Gipuzkoako Txapelketako bosgarren bike-trial proba izan zen Udalan. Guztira 50 parte hartzaile izan ziren, eta proba lau mailatan banatu zen: alebinak, infantilak, gazteak eta emakumezkoak. Domekako Gipuzkoako Txapelketako azken proba izan zen, eta hortaz, Gipuzkoako txapeldunak ezagutu genituen. Parte hartzaile bakoitzak antolatzaileek prestatutako bost ibilbideak hiru aldiz egin behar izan zituen. Gazte mailan, Benito Ross izan zen irabazlea, baina Iker Lezeta izan zen maila horretako txapelduna. Infantiletan, Jorge Martinendako izan zen Udalako proba, baina Patxi Cruz nagusitu zen txapelketan. Alebinetan, Borja Azurmendi izan zen onena, baina debagoiendar batek eskuratu zuen txapela: Markel Uriarte aretxabaletarrak. /X.U.

ZALDIBARARETOFUTBOLA

EMAITZAK

A MULTZOA

Iriztu Taberna - Koka Junior Basati	1-2
Bikain Akademia - Bin Laden	1-4
Goma2 - AC Surcos	3-6
Usotz Potroak - Etxerat	2-4

B MULTZOA

Azkena You Know - Aurrera Bolie	16-3
Irati STS - Rayo Aldeano	6-4
AT Celaya - Betraye	4-5
I.K.P. - Chapime Dribling	2-7

PARTIDUAK

MARTXOAK 23, ZAPATUA. EPAILEAK

10:50: KJ Basati - AC Surcos. Antolakuntza
12:00: AT Celaya - I.K.P. Antolakuntza
13:00: Bikain Akad - Etxerat. Antolakuntza
15:50: Irati STS - Chap. Dribling. Antolakuntza
17:00: Bin Laden - Iriztu Tab. Antolakuntza
18:00: Goma2 - Usotz Potroak. Antolakuntza

MARTXOAK 24, DOMEKA

11:50: Azkena YK - Rayo Aldeano. Antolaku
13:00: Aurrera Bolie - Betraye. Antolakunt

SAILKAPENA

A MULTZOA

	P	J
1. AC Surcos	2	1
2. Bin Laden	2	1
3. Etxerat	2	1
4. Koka Junior Basati	2	1
5. Goma2	0	1
6. Usotz Potroak	0	1
7. Iriztu Taberna	0	1
8. Bikain Akademia	0	1

B MULTZOA

	P	J
1. Azkena You Know	2	1
2. Chapime Dribling	2	1
3. Irati STS	2	1
4. Betraye	2	1
5. AT Celaya	0	1
6. Rayo Aldeano	0	1
7. Aurrera Bolie	0	1
8. I.K.P.	0	1

ORAINGO ASTEBURUAN DESKANTSUA

HAINBAT EZUSTE BIGARREN FASEKO LEHEN JARDUNALDIAN

Joan den asteburuan, Zaldibarko areto futbol txapelketako bigarren fasea hasi zen, eta hainbat taldek ezuste ederra eman zuten. B multzoan, lehenengo fasean goiko postuetan izan ziren taldeak irabazi egin zuten, baina A multzoan gauzak bestelakoak izan ziren. Bikain Akademiak eta Iriztu Tabernak kale egin zuten, eta AC Surcos eta Bin Laden taldeak dira goiko postuetan daudenak. Orain apur bat lasaitzen dena...

ANTOLATZAILEAK GEHIAGO SAIAITU BEHARKO DIRA EPAITZEAN

Bigarren fasean epaile lanak antolatzaileek egingo dituzte, eta joan den astean aritu ziren lehenengoz. Batzuek, antza, praktika falta daukate, eta hainbat partidutan epaileak izan ziren protagonistak. Ez da lan erraza, baina gehiago saiatu beharko dira.

KIROLAGENDA

JOKATZEKOAK

FUTBOLA

Mondra - Zumaia Erregionala. Zapatuan. 16:30. Atxabalpe.
Aldapetarrak - Mondra Ohor gazt. Domekan. 12:30. Matigoxotegi.
Arrasate - Amara Berri 2.gazt. Zapatua. 12:15. Atxabalpe.
Arrasate - Zarautz Infant. Zapatua. 09:45. Atxabalpe.
Mutriku - Mondra Infant. Zapatua. 16:30. Mutriku.

SASKIBALOA

AXA Getxo - Kenci Arrasate Seniorrak. Zapatuan. 20:00. Fadura.
Elgoibar - Kenci Arrasate 23 urte azp. Zapatuan. 19:00. Olaizaga.
Kenci Arrasate - Iraurgi Fideo Junior mut. Zapatuan. 16:00. Musakola.
Ordizia - Kenci Arrasate Junior neska. Zapatuan. 12:15. Majori.

ERRUGBIA

Arrasate - Eibar Seniorrak. Zapatuan. 16:00. Garagartza.
--

EMAITZAK

ERRUGBIA

Seniorrak: Sestao - Arrasate	6-34
------------------------------	------

ESKUBALOA

Seniorrak: Tolosa - Arrasate	30-24
Seniorrak: AGR Arrasate - Bergara	21-28

SASKIBALOA

Seniorrak: Kenci Arrasate - Askartza	86-67
Jun.mut: Lakor B.K.E - Kenci Arrasate	57-25
Jun.nesk: Aloña Mendi - Kenci Arrasate	48-19
Kad.mut: Kenci Arrasate - STL Etxaun	110-14

FUTBOLA

Erregionala: Orioko - Mondra	2-0
Ohor gazt: Arrasate - Anaitasuna	1-2
2. gazt: Texas - Arrasate	0-1
Ohor kadete: Arrasate - Aloña Mendi	0-2
Neskak: Arrasate - Mutriku	1-5

martxoak 19 aitaren eguna • martxoak 19 aitaren eguna




J. Markiegi Olarte 2 ARRASATE Tel.: 943 79 15 32



Aitak ere baditu sentimenduak

AMAGARA Erdiko kale 54 ARRASATE Tel.: 943 79 09 09



*Berezitasuna
eta dotorezia
opari bakarrean*

MONTBLANC Ukitu pertsonal
eta paregabea

J. URIARTE PAPERDENDA (Grupo Tamayo)
Ferrerias 32 ARRASATE Tel.: 943 77 03 80



ARRASATE Otalora z/g Tel.: 943 79 82 68
BERGARA Barrenkale 35 eta Irala 5



Ekon musika taldea bederlatzi partaidek osatzen dute taula gainean. Gogor datoz hirugarren diskoa aurkeztera.

YAGO GORONAETA ETA HELOY GALÁN/EKON MUSIKA TALDEKO PARTAIDEAK

“Disko zuzenagoa egin dugu, bai hitzak bai eta musika ere”

ARRASATE IRRATIA

Ekon taldeak *Salatzen dut* izeneko hirugarren diskoa kaleratu du, Iruñeko Gor diskoetxearekin, eta zuzenean jotzeko gogo handia dute taldekideek. Yago (gitarista) eta Heloy (bateria) izan ziren Arrasate Irratian.

Salatzen dut da diskoaren izena. Zer salatzen du Ekon taldeak?

Yago: Egun, gauza asko daude salatzen. Euskal Herrian une gogorak bizi izaten ari gara, gainera. Horrez gain, pasibotasun handia dago eta horren aurrean, zentzumen kritikoa txiki egia. Guk diskoari oso izenburu zuzena jarri diogu, eta hitzak ere horrelakoak dira.

Noiz izango da kalean?

Gaur, egubakoitza, espero dugu. Jendeak esango du zertan ibili ote garen denbora honetan guztian. Egia esan behar badut, partaide aldaketek eragina izan dute, eta lanean oso gogor ibili gara.

Prozedura luzea izan ei da, ezta? Zatika grabatu duzue...

Heloy: Duela pare bat urte abestiak ateratzen hasi ginen, eta iaz, abestiak biribilduta geneuzkan. Gerora, Soziedad Alkoholikako Jimmyren laguntzarekin moldatu genituen eta urrian, musika grabatzen hasi ginen. Beste geldiume bat egin genuen,

“Partaide aldaketek eragina izan dute taldean, eta lan gogorra egin dugu diskoa prestatzeko”

“Disko salmentatik ez dugu diru askorik jasotzen, zuzenekoetatik, berriz, zertxobait”

eta urtarrean, ahotsak eta samplerrak grabatu genituen.

Mil A Gritos diskoetxetik Gor-era pasa zarete. Zergatik?

Y: Guk disko hau aurkezteko aurrekontu bat erabaki genuen, baina ez ginen Mil A Gritos-ekin ados jarri. Gor-ekin berba egin eta haiek onartu egin zuten. Hala ere, Mil A Gritos-ekoekin oso harreman ona daukagu oraindik, bai profesionala baita lagun artekoa ere.

Partaide aldaketak izan dituzue azkenaldian. Zeintzuek osatzen duzue Ekon gaur egun?

Heloy: Taula gainean bed-

ratzi lagun gara. Hainbat aldaketa izan ditugu: Ibanek, lana dela eta, taldea utzi zuen. Ondorioz, ordu arte bateria jotzaile zen Juan abesten hasi zen eta ni neu bateria jotzen hasi nintzen. Gerora, berriz, Xabik Madrileren joan behar izan zuen lanera, eta haren ordean, Lekeitioko Unai sartu zen gitarra jotzera.

Partaide aldaketa horiek izan dute eraginik musikan?

Y: Bueno, ahotsa aldatu dugu, eta musika talde baten ahotsak garrantzi handia dauka, ia %50. Uste dugu aldaketa hori igarri egingo dela.

H: Nik uste dut *Salatzen dut* diskoa zuzenagoa dela. Ez bakarrik hitzetan, musikan ere bai. Aurreko diskoetan abestiak konplexuagoak eta luzeagoak ziren. Oraingoak, berriz, motzagoak eta zuzenagoak dira.

Disko berria non eta noiz aurkeztuko duzue? Badaukazue zuzenekoetik hitzartuta?

Y: Apirilaren hasieran, Elgoibarren joko dugu eta gero, Kafe Antzokian. Bilboko kontzerturako zerbait berezia prestatzen gabiltza. Bestela, zuzeneko emanaldietan, beti bezala, sorpresak izango dira.

Diskoak “pirateo”-ren aurkako sistema izango du...

Y: Bai, diskoetxeak proposatu zigun, eta tira, aurrera! Guk ez dugu disko salmentatik diru askorik jasotzen, zuzenekoetatik, berriz, zertxobait.

KULTURAPILULAK

Arrasate Musikalek kontzertuak eskainiko ditu martxoaren 15ean eta 16an

Gaur, egubakoitza, kontzertua izango da 18:30etik aurrera Arrasate Musikaleko aretoan. Arrasate Musikaleko biolin eta perkusio ikasleek emango dute. Bestalde, bihar, Arrasate Musikaleko fagot laukoteak ere kontzertua egingo du Gasteizko Musika Eskolan, 11:00etan; eta 17:00etatik aurrera, Amaia Udal Antzokian Arrasate Musikaleko Banda entzuteko aukera izango da.

Alboka ikastaroa izango da, martxoan hasi eta ekainera arte, zapatu goizetan

Martxoaren 16an hasi eta ekainaren 15era arte, alboka ikastaroa izango da Arrasate Musikalen. Angel Agiriano irakaslearen gidaritzapean, zapatu goizetan izango dira eskolak. 18 euro ordaindu beharko dira izena emateko, 12 euro ikasle eta langabeek. Interes duenak Gazte Bulegora jo beharko du.



Bikote horrek ipuinak kontatzeko oso modu orijinala ei dauka.

Tim-ek & Cas-ek helduentzako ipuinak kontatuko dituzte

IKER BARANDIARAN

Datorren egunean, martxoaren 21ean, 19:30ean, Tim Bowleyk eta Casilda Regueirok helduendako ipuinak kontatuko dituzte Udal Liburutegian. Bikote horrek ingelesa eta gaztelania uztartuko ditu.

Eguenean, barre egiteko eta bizitzari buruzko hausnarketa polita egiteko aukera izango da Monterronen, Udal Liburutegian. Hala definitu zuten Tim-ek eta Cas-ek euren emanaldiaren funtsa. Izan ere, iaz ere, leku berean izan ziren ipuinak kontatzen, eta jendeak oso ondo hartu zituen. “Oso saio polita izan zen, oso gustura egon ginen, komunikazio polita izan genuelako”.

INGELESEZ ETA GAZTELANIAZ

Egia esan, Tim Bowley ingelesak eta Casilda Regueiro galiziarak ipuinak kontatzeko oso modu bitxia daukate. Batek ingelesez eta besteak galizieraz edo gaztelaniaz kontatzen ditu ipuin berak, eta ia aldi berean, betiere bakoitzaren esperientzia abiapuntu hartuta. Are gehiago, hizkuntza bakoitzeko esamolde propioak

itzuli gabe. Horrez gain, Casildak esan zigunez, ez dute etsegurik egiten: “Saio bakoitza desberdina izaten da, jendeak daukan jarrerak asko baldintzatzen du baita guk daukagun egunak ere”. Tim Bowleyk hogeitau urte daramatza ipuin kontalari gisa eta Casilda Regueirok, bost. Bestalde, biak batera *Spinning tales* *Hilando cuentos* ikuskizunarekin oso gustura dabilta, eta dagoeneko Espainiako Estatuak eta Portugalgo hainbat eta hainbat aretotan antzeztu dute: “Tim Bowleyk bakarka lan egiten duenean, hizkuntza eskoletan aritzen da. Bestela, gu biok, batez ere, liburutegietan, kultura etxeetan eta jaialdietan”.

Casildak esandakoaren ildora, bikoteak kontatzen dituen ipuinak munduko hainbat lurraldetatik hartutakoak dira (Ekialdetik, Errusiatik, Ameriketatik, Europatik...). Baina, hori bai, betiere, ahozko tradizioetik hartutakoak izan behar dira: “Ez dugu gura ipuin modernorik. Antzinakoak hartzen ditugu guk, bizitzaren gainekoak, esanahi berezia dutenak. Horrez gain, entzuleek parte hartzeko ipuinak guk sortzen ditugu”.

E, TXO!

TXATXILI, BEGIRALE BILA

Txatxilipurdi 2002ko udalekuak prestatzen hasi da. Udalekuan begirale izateko interesa duzuenok, bidali curriculum Pablo Urangako egoitzara (6. zenb.) edo deitu 943 77 17 39 telefono zenbakira. Derrigorrezkoa da 18 urte baino nagusiagoa izatea, euskaraz berba egiteko gaitasuna izatea eta Txatxilipurdik antolatzen dituen eragileen heziketa saioretan parte hartzea.

LUDOTEKA IBILTARIA

Bihar, 11:00etatik 15:30ak arte, Erguingo Herri Eskolan, Txatxilipurdiren ludoteka ibiltaria egongo da.

TXATXILIPURDIKO BATZARRA

Gaur, hilak 15, Txatxilipurdi elkarteak batzar orokorra egingo du, 19:00etan, AEDko tabernan. Hantxe agertzeko gonbidapena egin diete Txatxilipurdikoek bazkide eta partaide guztiei.

TXATXIARTISTAK LANPETUTA

Txatxilipurdi elkartearen baitan sortutako Txatxiartista taldeak beste ikuskizun bat prestatzen dihardu joan den aspaldian. Prestatzen ari diren lanak *Eguzkiaren bila* izena dauka eta antzerkia, musika eta dantza uztartuko ditu. Laster izango dugu horren berri zabalagoa.

GAZTETXEEN WEB ORRIA

Euskal Herriko gaztetekek euren web orria daukate: www.gazteteak.com da helbidea. Gaztete guztien elkargune izan gura du orri horrek. Web orrian, kontzertuen, irteeren eta beste ekintza batzuen berri emango da. Eta *Txat*-ak, loturak, eta e-posta jarri dituzte. Gazteteen mapa ere egiten dabilta.

GUREGAIK/ GAZTE TALDEENDAKO DIRULAGUNTZAK

Herriko gazte taldeendako dirulaguntza deialdia

IKER BARANDIARAN

Urtero moduan, Arrasateko Udalak, Gazteria batzordearen bitartez, herriko gazte taldeei zuzendutako dirulaguntzak bideratu ditu. Horretarako eskaera epea zabaldu du, eta apirilaren 15ean bukatuko da.

Arrasateko Udalaren urteko dirulaguntza jaso ahal izateko interesatuta dauden herriko gazte taldeek honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte apirilaren 15a baino lehenago: udaletxean bertan eskura daitekeen eskaera inprimakia, egoki bete beharko dena; taldearen 2001eko jardueren memoria; taldearen 2001eko gastuen eta sarreraren balantzea; 2002ko jardueren egitaraua; eta,

Gazte taldeek apirilaren 15a baino lehen eskatu beharko dituzte dirulaguntzak

azkenik 2002ko gastuen eta sarreraren aurrekontua.

DIRULAGUNTZA, BI ZATITAN

Dirulaguntza bi zatitan emango da: lehenengo zatia talde bakoitzari onartutako kopuruaren %60 izango da. Gobernu batzordeak erabakia hartu eta hamabost egu-



IKER BARANDIARAN

Hainbat musika taldek dirulaguntzak eskatuko dituzte. Irudian, Kañeria 13.

nera jasoko da laguntza; bigarren zatia (%40), jasotako lehenengo zatiari dagokion memoria

(jarduerak, gastuen zerrenda eta fakturak) aurkeztean jasoko da, azaroaren 16an, hain justu ere.

LOTSABARIK/ Yoli De la Cruz

“Eztabaidatzeko ez daukat pazientziarik”

IKER BARANDIARAN

Yoli euskara praktikatzeko irrikan dabil eta bere burua eskaini zuen *Lotsa barik* atalean agertzeko. Reala ikustera birritan joan, eta irabazi egin zuen; hortaz, berriro joan dadila esan diogu.

• Txikitán, zer izan gura zenuen?

Ile apaintzaile izan gura nuen. Gerora, estetika zentro baten lan egiteko gogoia piztu zitzaidan. Oso txikitatiki ibili naiz lagunen eta senitartekoen ileak orrazten eta moztzen.

• Zelan ikusten duzu zeure burua hemendik 20 urtera?

Ezkondata eta seme-alabekin, gehienez, bi seme-alabarekin. Arrasaten bizi izango nintzateke. Bulego baten lan egin gura nuke. Jendearrekin hartu-emana izatea gustuko dut.

• Zein da, zure ustez, adin ideala?

Orain daukadana. Gura dena egin daiteke. Edozelan ere, hamazortzi urte bete gura ditut, gida-baimena ateratzeko.

• Bizitzan zeri ematen diozu lehentasuna?

Lagunekin harreman onak edukitzeari.

• Zerk arduratzen zaitu gehien?

Orain, ikasketek, etorkizunak arduratzen nauelako.

• Zerk ematen dizu lotsa?

Elkarrizketa honek apur bat. Baina bestela, nahiko irekia naiz.

• Zure bertute bat? Eta alde txarren bat?

Jendeari entzutea gustuko dut, baina eztabaidatzeko ez daukat pazientziarik.

• Zure gorputzeko atalik gustukoena?

Begiak; haien kolorea eta tamaina gustuko dut.

• Arrasaten ligatzen da?

Bai. Nahiko lotsatiak eta itxiak gara, baina behin irekiz gero, ligatzen da.

• Jendeari zeri botatzen diozu begirada lehenengo?

Ipurdiari lehenengo, eta hitz egiterakoan, begiei.




ADINA: 17 urte • IKASKETAK: Batxilergoa • ZALETASUNAK: Kirola egitea
LIBURU BAT: 'Kutxidazu bidea Ixabel' • FILM BAT: 'Gladiator' • MUSIKA TALDEA: Denetarik entzuten dut • KIROL TALDEA: Reala

**TOLDOS
LECE** C/B

Kataide Industrialdea, 14 Musakola • ARRASATE
Tel.: 943 79 23 83 Faxa: 943 77 04 45

**Eguzkiari aurre egiten diogu
inork baino hobeto**



**Hilbera
kafetegia**

Uribarri Etorbidea
ARRASATE
Tel.: 943 79 22 70

BEHEKODENDATIK

Javier Ayani Aranburuzabala

KURRUXKO OKINDEGIKUE

XABIER URZELAI

Javierrek ultramarinuen denda bat euken, baiñe herrixen saltoki haundixek jarri euenien, negozioz aldatu biher izen euen. Buruari buelta asko emun eta gero, okindegia bat jartie erabaki euen, eta erabaki egokixe izen zala uste dau. Gustetan jako lan barrixa Javierrei, eta oin, lasai jarraitu gureko leuke.

Amets bat?

Hirurogei urtekin jubiletie.

Eta amets txar bat?

Ba, komertzioz aldatu biher izen neuenien pasau nittuenak ostera be ez pasetie.

Egin dozun azken biajie?

Nojara, oporretan.

Txartel horixe, zeñei?

Hamengo Udalari.

Eta gorrixe?

Txartel horixakin kasu gutxi egingo leuskite; hortaz, gorrixe be eurei.

Pelikula bat? Liburu bat?

Disko bat?

Bailando con lobos / Los pilares de la tierra / Danetik entzuten dot, baiñe musika klasikue gustetan jat gehixen.

Drogak legalizauko zittukie?

Bai. Pasetan dabillena ez pasetako derrigorrezkue dala uste dot.

Eta prostituziñue?

Hori be bai. Hori be lanbidie da.

Tabernetako txikiteue ala diskotekak?

Nik neuk tabernetako txikiteue bakarrik bizi izen dot; hortaz, ezin dot konparau.

Alkate izengo bazitze, ze hobetuko zeunke?

Gauza batzuk erreguletan badaue, beste batzuk be erregulau egin biherko leukie. Tabernak ezin die bata bestien onduen jarri, eta dendak bai?

Eta lehendakari izengo bazitze?

Ez neuke gure lan hori neretako. Balixo egin biher da horretarako.

Ezagutu dozun pertsona interesante bat?

Ez jat etorten iñor be burura.



X.U.

“Mondraguen saltoki haundixek jarri euenien, negozioz aldatu biher izen neuen”

Eta ezagutu nahiko zeunke-ena?

Medikuren bat edo...

Tranpan ibilttekotan norbaittekin, zeñekin?

Horrenbeste aukera dago! Horretarako ez dago problemarik, badago nun aukeratu.

Bizi izetera hiri batera juetekotan, nora?

Donostiara.

Gustoko mendi bat?

Murugain. Neure neurriko mendixe da. Altuague izengo balitz...

Telebisiñoko programa bat? Eta irratikue?

National Geographic-eko erreportajiek ikusgarrixe izeten die.

“Momentu gatzak izen zien, baiñe hartutako erabakixakin asmatu egin geuen”

Arrasate Irratixe entzuten dogu. Ze biher da ogi ona egitteko?

Ez dakit. Geurie munduko ogi onena da, baiñe ondiokan ez dakit zergaittik.

Horrenbeste ogi egin eta gero, zeuk jaten dozu ogirik?

Bai, eta gero eta gehixago.

Ze ogi klase gustetan jatzu gehixen?

Klasikue, betikue. Lehen, “ogi frantsesa” deketan jakon.

Iretzargailu ona eukiko dozu, ala?

Egunero-egunero goizeko seiretan etorten naz lanera, baiñe honezkero ez dauket iratzargailu biherrik, jo aurretik espaketan naz-eta.

NIREBIDAIAHURA / Andoni Orobengoa

Eskoziara / 1997ko urritik 1998ko azarora arte

Aurreko astean, Andonik Eskozian bizi izandakoak kontatzen hasi ginen, baina hasi besterik ez ginen egin, asko dago-eta kontatzeko. Andoni Edinburgh-en bizi izan zen. Edozelan ere, Eskozia alderik alde bisitatu zuen: “Unibertsitatean hasi bezain laster, mendi talde baten eman nuen izena, eta aste-buruetan irteera mordo egiten genituen”. Edinburgh-ek sekulako kultura eskaintza dauka, eta Andonik hango tabernetan izaten den giroa azpimarratu gura izan du: “Edinburgh-en asteburuetan izaten den giroa Euskal Herrian astean barrena ere izaten da. Taberna askotan zuzeneko emanaldiak egiten dira, eta oso giro alaia izaten da. Kontuan hartu barik Eskozia-ko garagardoa sekulakoa dela”.

Horrez gain, party-en kulturak era harritu zuen Andoni: “Etxean sekulako parrandak antolatzen genituen, eta jende mordo izaten zen. Behin, polizia bi ere izan ziren, eta lanorduez kanpo zeudenez, polizia biek ere sekulakoa harapatu zuten. Egia esan, Eskozian beste ez dut inoiz edan.”

Eskozian, ikasi, parrandak egin eta inguru guztiak bisitatzaz gain, lan egiteko ere aprobetxatu zuen Andonik: “Edinburgh-eko ospitalean izan nintzen lanean, catering zerbitzuan, eta sekulako esperientzia izan zen”. Andoniren esanetan, kanpoan lan egitea ere oso aberasgarria izaten da.

“Eskozian, lan egiteko beste filosofia bat dago. Hemen, errepide bat konpondu behar bada, lana egunez egiten da, eta sekulako auto ilarak sortzen dira. Eskozian, ordea, lana gauzez egin behar bada, gauzez egiten da”. Andoni master bat beso azpian itzuli zen Eskoziatik, baina orain bi pena dauzka: denbora luzeagoa Eskozian geratu ez izana eta hango lagunekin hartu-emana galdu izana.




“Etxean sekulako parrandak antolatzen genituen”

“Atzerrian lan egitea guztiok egin beharko genukeen zerbait da”

XABIER URZELAI



Andoni Orobengoa graduazio egunean, eskoziar jantzita.



IBABE GARAJEA

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA

Gesalibar auzoa, z/g. Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE



Gambrinus garagardotegia

- Menua: bazkariak eta afariak
- Karta
- Errazioak
- Pintxoak eta kazuelatxoak

Otalora Lizentziatua, 40-42
Tel.: 943 79 53 32

gorka ileapaindegia
ordutegia:
asteartetik ostiralera 09.30 - 20.00
larunbatetan 08.00 - 14.00
ferrerias, 35 arrasate
943 77 13 78

GORKA ileapaindegia

ZAHARREN ETXETIK



Ehoziriko ikasleek esan zuten irakasleak etxeko lanak eta guzti bidaltzen dizkiela.

IKER BARANDIARAN

Ehoziriak eginez, erlaxatu eta aspaldiko usadioa berreskuratu

IKER BARANDIARAN

Urribarriko zaharren egoitzan gogor ekiten diete ikastaroei. Asteko ia egun guztietan daukate ikastaro edo jarduera bereziren bat. Duela hiru urte hasi zirenetik hona, astelehenero ehoziri (bolillo-a) ikastaroa izaten dute. Horretaz gehiago jakiteko, euren-gana jo genuen.

Duela hiru urte hasi zen Idoia Ibañez arrasatearra Urribarriko zaharren egoitzan ehoziri ikastaroak ematen. Harrera ona izan zuen, eta ordutik hona, urtero, hamar bat lagun ibili dira horixe ikasten. Gutxi gorabehera, irailean hasi eta ekainera arte ibiltzen dira lanean, astelehenetan, 15:00etatik 17:00etara. Ikasle batzuk hasieratik dabilta, baina beste batzuk gerora hasi dira ehoziriak egiten ikasten.

Marina, Tere, Mertxe, Antonia, Irene, Feli, Kontxi, Trini eta Segunda oso gustura daude ikastaroarekin. Denak emakumeak dira. Idoia Ibañez irakaslearen esanetan, gazteagoak eta gizo-

nezkoak ere gonbidatu gura dituzte, denborari bizkar eman eta lasai-lasai ikas dezaten. Izan ere, ikasleek diote ehoziriaren egitea asko erlaxatzen direla, odol-zirkulazio hobea dutela eta denborapasa ezin hobea dela.

Astero-astero ondo pasatu, erlaxatu eta zerbait ikasteaz gain,

Egin eta egin, ikasi egiten da

Lastoz betetako mundillo edo kuxina prentsatua altzoan utsita, haren gainean jostorrazak jarri eta hariak gurutzatzean dago koska. Irakasleak kuxina gainean duten kartoi mehe baten marrazki antzeko batzuk jartzen dizkie. Pauso horiek jarraitu behar dituzte, ehoziriaren egin eta egin, eskulan mota hori ondo ikasteko eta, bide batez, berreskuratzen.

etxera oso lan ederrak eraman ohi dituzte. Ehoziriaren bidez gauza asko egin ditzakete: zapiak, izarak, gortinak, eskularruak, artilezko oinetakoak... Ikastaroan egindako lan batzuk ikusiz gero...

ASPALDIKO ESKULANA BERRESKURATU
Ikastaroko irakasle Idoia Ibañez-zen esanetan, ehoziriaren antzinako eskulana da, kostaldean sortu zen eta Erdi Arotik dator. Ikasleentako batzuk umetan ere ehoziriaren egitea zuten. Baina gaur egun, eskulan hori apur bat galduta da. Horrexegatik, Idoiak ikusten duenean gazteak ehoziriak egitera animatzen direla, asko pozten da: "Gazteak ehoziri-lanak egiten hasiz gero, eskulan eta antzinako usadio hori ez galtzea lortuko dugu".

Idoiaren ustez, edonork egin dezake eskulan mota hori, betiere norberaren abilezia kontuan hartuta. Ez da material askorik behar: mundillo deritzon kuxina, kotoizko edo lihozko haria, ehoziri deritzen makilak eta jostorrazak. Horiek edukita, ez da besterik behar lanean hasteko.



Uriarte gotzaina Iturbide Egoitzan izan zen


Gipuzkoako gotzain Juan Maria Uriartek gure ibarra bisitatzen dihardu azken hilabeteetan. Joan den egubakoitzean, hilaren 8an, Iturbide egoitzan izan zen, han bizi direnak bisitatzen. Eta gero, meza esan zuen Iturbide egoitzan bertan. //B.

ZAHARREN AHOTIK

Joxe Agirre

LANBIDE ASKOTAN IBILITAKO ERRETIRATUA

Joxe Agirre 1920ko martxoaren 26an jaio zen, Gesalibarren, Arruaga baserrian. San Juan de Dios ospitalean lan ugari egin zuen Joxek.



Gaztetxotan lanbide asko ikasi zenituen?

Sei urte nituenetik hamalau egin artean, Garagartzako eskolan ibili nintzen, Jauregi maisuarekin. Sasoi berean, Gesalibarren, solfeoa eta kantutak ikasten ibili nintzen. Gerora, hamalau urte bete nituenean, baserrian abereak zaintzen-eta ibili nintzen. Ordu arte, ez nuen beste lanbiderik ikasi. Gero, ordea, bai.

San Juan de Dios ospitalean lanbide asko izan zenituen, ezta?


San Juan de Dios ospitalean 17 urterekin sartu nintzen. Aitak eta anaiak hiltegiaren egitea zuten lan, baina anaia gerran hil, eta neu joan nintzen aitari laguntzera. Horrez gain, lan gehiago ere egin behar izan nituen. Gerra aurretik, San Juan de Dios ospitalerako ogia egiten nuen, errekaduak egiten nizkien... Gerra bukatu

ondoren, Gasteizen soldadutzan bi urte igaro nituen. Gasteiztik bueltan, ospitaleko harrobitik harriak atera, hildako gaixoak lurperatu, ortuan lan egin, arotz lana egin, janariak prestatu, lorazain, harreraz arduratu... Suhiltzaile izan ezik, ia denetarik egin dut.

Eta erretiratu zinenetik, ez zara aspertzen?

Hirurogeita lau urterekin erretiratu nintzen, baina oraindik badaukat zer egin: egunero mezara joan, arrebari errekaduak egin, egunero bazkaria eta afaria egin, paseatu, okindegiaren lagundu...

Garagardo ona, giro hobea



TXIRRITA

Taberna

Gesalibar auzoa. Tel.: 943 79 10 35

ASESORIA ARRASATE

- Juridikoa
- Lan arloa
- Fiskala
- Bankinter finantza agentea

Erdiko kale, 32. 1 ezk • ARRASATE
Tel.: 943 79 01 47 Faxa: 943 79 73 00

S. CARRASCAL S.L.

Guk egindakoak:

- Sukalde altzariak
- Armairu enpotratuak
- Trastelekurako armairuak

Fabrikaren erakusketa

Gipuzkoa etorbidea, 6 -1.a
Tel/Faxa: 943 79 01 82



ARRASATE
Asier Sánchez
Martxoaren 1ean, 6 urte.
Zorionak! Umezaintzako laguntxoan partetik.



ARRASATE
Iñaki Durañona
Martxoaren 16an, 44 urte.
Zorionak! Inurriatarren partetik.



ARRASATE
Iñgor Uribesalgo
Martxoaren 11n, 30 urte.
Zorionak! "Bixentaz gaur-paseraz"-en partetik.



ARRASATE
Julian Inurria
Martxoaren 12an, 79 urte.
Zorionak, aitiba! Familiaren partetik.



ARRASATE
Alaitz Martínez
Martxoaren 19an, 8 urte.
Zorionak! Etxekoan partetik.



ARRASATE
Txema Pozo
Martxoaren 20an, 40 urte.
Zorionak! Etxekoan partetik.



ARRASATE
Iraia Cabanillas
Martxoaren 15ean, 22 urte.
Zorionak! Itsasoren, Bittorren eta familiaren partetik.



ARRASATE
Ander Ezkurra
Martxoaren 14an, 11 urte.
Zorionak! Familiaren partetik.



ARRASATE
Lourdes Beitia
Martxoaren 18an, 33 urte.
Zorionak! Ainhoaren eta Leireren partetik.



ARRASATE
Haizea Fernández
Martxoaren 21ean, 8 urte.
Zorionak, familiakoan partetik.



ARRASATE
Alaitz Gabilondo
Martxoaren 19an, 5 urte.
Zorionak, etxekoan partetik.



ARRASATE
Leire Presa
Martxoaren 13an, 7 urte.
Zorionak! Gorkaren eta Nataliren partetik.



ARRASATE
Xabier Inurria
Martxoaren 18an, 12 urte.
Zorionak! Aita eta ama.



ARRASATE
Amaia Inurria
Martxoaren 19an, 14 urte.
Zorionak! Aita eta ama.



ARRASATE
Mikel Telleria
Martxoaren 19an, 5 urte.
Zorionak! Etxekoan partetik.



ARRASATE
Elena Herrarte
Martxoaren 19an, 22 urte.
Zorionak, potxola! TMT.



ARRASATE
Izar Ijurre
Martxoaren 11n, 4 urte.
Zorionak! Aita, ama eta Naia.



ARRASATE
Haizea Pagoaga
Martxoaren 15ean, 17 urte.
Zorionak! Aita, ama eta Oihana.



ARRASATE
Eneko Martínez
Martxoaren 21ean, 3 urte.
Zorionak! Maider eta gurasoak.



ARRASATE
Rosario Uriarte
Martxoaren 10ean, urtebetetzea. Zorionak! Etxekoak.



ARRASATE
Antxon Bedia
Martxoaren 17an, urtebetetzea. Zorionak! Hiru neskak.



ARRASATE
Garazi Etxeberria
Martxoaren 18an, 24 urte.
Zorionak! Koadrilakoan partetik.



ARRASATE
Nerea Barriocanal
Martxoaren 9an, 5 urte.
Zorionak! Umezaintzako laguntxoan partetik.



ARRASATE
Joseba Garate
Martxoaren 21ean, 5 urte.
Zorionak! Umezaintzako laguntxoan partetik.

OSO GUTXI FALTA DA

Zure gorputza **ZAINTZEN** dugu
OPORREZ goza dezazun

Aste Santuko eskaintza:

Gorputz esfoliazioa
Gorputz hidratazioa itsas belarrekin

+

Aurpegiko azal garbiketa

Bakarrik, 60€.

MIREN GARAI



Zarugalde 23, 2. ezk. · Arrasate · 943 79 96 90



GRUPO **RKUZ** 1950-2002



Arkauz zure etxea da.



RKUZ ARABIA ETORBIDEA 20 • Tel./Faxa: 943 79 23 51
ARETXABAETA

TXE MOBEL ARABA ETORBIDEA 5 • Tel./Faxa: 943 79 41 82
ARRASATE

RKUZ MITARIE 3 • Tel./Faxa: 943 77 04 55 **FAGOR**
ARETXABAETA

RKUZ ASUNCION, 1 • Tel./Faxa: 943 79 10 97
ARETXABAETA **expert**

Txirritola

ARAMAIO / Barikua / 2002ko martxoaren 15a / 19. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Ubane Madera • Otolara Lizentziaduna 31 20500 ARRASATE • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: txirritola@goiena.com

Iaz baino ganadu gutxiago dago herrian, bereziki baserrian

UBANE MADERA

Iaz baino ganadu gutxiago dago Aramaion. Hori esan dute aurten ganaduaren gainean egin dituzten zenbaketek. Urtero moduan, Udalak herriko mendi eta etxeetan dauden ganaduak zenbatu ditu. Gero, behar duen abeltzainak Udalaren ziurtagiria jaso eta dirulaguntzak eska ditzake.

Ez dago beherakada nabarmenik, baina iazko datuekin konparatuz gero, aurten, ganadu gutxiago dago Aramaion. Hain justu, eta mendian zein etxean dauden animaliak kontatuta, 343 ardi gutxiago daude, 55 behi gutxiago, 65 ahuntz gutxiago eta 36 zaldi gutxiago.

Bestalde, Udalean jasotako datuek erakusten dutenez, gehien dagoen ganadu mota ardiak dira:

guztira 3.108 ardi daude Aramaion. Hurrengo, behiak datoz: 1.032 behi daude. Hirugarren lekuan zaldiak daude, guztira 214. Eta azkenik, ahuntzak; denetara 96 ahuntz daude.

Auzoei erreparatuz gero, Olaeta da aberatsena. Auzo horretan daude herriko ardi eta behi gehienak. Hain justu, 1.195 ardi mendian zein baserrietan. Behiak, berriz, 657 daude auzoan.

Ardi gehien dituen bigarren auzoa Eguzkierripa da. Guztira 450 ardi daude han. Eta, behi gehien dituen, berriz, Azkoaga, 75 ditu-eta. Bestalde, Matxainen daude ahuntz gehien, 48 guztira. Eta zaldi gehien, berriz, Alzaga auzoan daude, 51.

DIRULAGUNTZAK


Udalak batutako datu horiekin, abeltzainek ziurtagiri bat eska dezakete. Eta gero, hori erabili dirulaguntzak eskatzeko. Besteak beste, ganaduaren primaren eskaera egiteko epea zabaldu du.

Horren harira, eguaztenetik hasita hil honen bukaerara arte, Vital Kutxan pertsona bat izango da interesa duten abeltzainei dirulaguntzak lortzeko paperak betetzen laguntzen. Baina aurten, beharrezkoa izango da horretarako txanda hartzea.



ARAMAIO/LASAGABASTER

Aramaion gehien dagoen ganadu mota ardiak dira.



Andre ugari eta giro ezin hobea

Emakume Langilearen Nazioarteko Eguna ospatzeko ekitaldi ugari egin zituzten Aramaion joan den astean, astelehenean hasi eta barikura arte. Hain justu ere, eta urteroko ohiturari eutsiz, andrakumeen afari batekin bukatu zuten egitaraua. 58 andrazko batu ziren San Martin Eskolako jangelan. Parte hartzaileek adierazi zuten iaz baino hogeit bat lagun gehiago izan zirela; hortaz, oso pozik daude aurtengo emaitzarekin. Afaldu ere oso ondo afaldu ei zuten, eta herriko hiru neskatilak giroa alaitu zuten trikiti doinuekin. /ARGAZKIA: GORETI ORTUETA.

HERRITARRENHITZA/ Manex Agirre · Ikaslea

PALMONDOETATIK

Gure herri madarikatu bezain idolatratu hau irla txiki modura ikusi izan du jendeak urtetan zehar. Irla horrek barne-arazoak ditu, noski, planetako irla guztiek bezala, palmondodun edo palmondogabe izan, arazorik gabe bizitzea arriskutsua baita gaur egun.

Arazo beharrean ondare izan behar lukeen gai bati buruz jardun nahi nuke: euskal kulturaren zabalkundea. Eztabaida bat mahairatzea daukat buruan, eta horretarako txanponaren bi aurpegiak erakustea derrigorrezkoa da. Eztabaida betikoa da: kantitatea vs kalitatea. Denok dakigu

zer den ETB, eta zer suposatzen duen *Sorginen Laratza* bezalako programak pantailaratzeak. Agian, betidanik eta "tradizionalki" (hitzari kiratsa badario ere) berezko euskal kulturaren barruan ez zeuden edukiak erakustea dakar: Idiazabalgo Kontxesi Miss Euskadiren kuleroak ikustea gerta daiteke konturatu gabe. Positiboa da hau: euskaltasun horretatik "tradizionalki" (puaj) kanpoan



"Eskerrak *The Balde* eta *Putz* geratzen zaizkigula"

zeuden sektoreak erakar ditzake! Uau!

Bi aldetatik zorrozitutako labana da hau ordea: kalitateari begiratu behar genioke. Miss Euskadiren kuleroek euskal kulturaren zabalkundeari aterean bat ireki badiezaioke ere, ez al dago lehenik mugimendu horren barruan lasai

ederrean aurkitzen zena alienatzeko arriskurik? beste modu batera esanda, ez al dago Kontxesi bezalakoei horrelako-

ak gehiegi gustatzearen arriskurik? Galdera bakarra ikusten diot ondorioztat honi: euskaraz beharrezkoa al da "telezaborra"? zer da garrantzitsuagoa, Donostia edo Bilboko "pijek" ETB ikustea eta modu horretan euskalduntzea, hala benetan kalitatezkoa den zerbait mantentzea, sektore horiei kasu gutxiago eginez? Eskerrak *The Balde* eta *Putz* geratzen zaizkigula, zabalkundea ere kalitatez egin daitekeela sinesteko. Gauza bakarra dut argi: Miss Euskadiz maiteminduko naizela Miss Euskal Herria bihurtzen denean, ez lehenago. Gora Euskal Herri palmondoduna!

LABUR

Berrogeita hiru mila euro pasatxo Aramaiorendako

Urkiolako parkearen gaineko urteroko batzarra egin zuten astelehenean. Iazko kudeaketa eta aurtengo kudeaketa plana izan zituzten berbagai. Eta bie ere onespina eman zieten. Horrela, aurten, 700.000 euro pasatxoko aurrekontua izango du Urkiolako parkeak. Horrek esan gura du Aramaiorako, gutxienez, 43.000 euro pasatxo izango direla. Diru horrekin, zuhaitzak birlandatzeko eta Orixolerako bide zati bat konpontzeko asmoa du Aramaioko Udalak.

TELEFONO JAKINGARRIAK

OSASUNA / LARRIALDIAK

Osasun etxea (txandak)	945 44 53 40
Botika	945 44 50 03
Udaletxea	945 44 50 16
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Gurutze Gorria (Legutio)	945 45 52 52
San Martin Eskola	945 44 50 04
Taxia eta autobusak	945 44 50 33
Udal kiroldegia	945 44 53 35
Postetxea	945 44 50 83
Zuliako Eskualdea	945 43 01 67
Suhiltzaileak (Zubillaga)	943 78 28 00

AUTOBUSORDUTEGIA

ARRASATE	ARAMAIO	GASTEIZ
07:00	07:15	08:00
12:00	12:15	13:00
15:20	15:35	16:20
20:30	20:45	

GASTEIZ	ARAMAIO	ARRASATE
08:30	09:15	09:30
13:10	13:50	14:05
	17:00	17:15
19:30	20:15	20:30

OHARRAK

PALETA TXAPELKETA

Azteratu egin da paleta txapelketako finala. Gaur (barikua) izan beharrean, bihar (zapatua) izango da. Hain justu, goizeko hamarretan elkarren kontra arituko dira aurtengo finalistak: Barandiaran aita-emeak eta Ojanguren eta Garaita. Irabazleak garaikurra eta brodatutako txapela irabaziko ditu. Eta partiduaren ondoren, hamaiketako izango dute parte hartzaile guztiak. Hirugarren eta laugarren postuak ere jokoan daude. Joan den astean iragarri bezala, gaur izango da partidua. 21:00etan, Azurmendi eta Arriolabengoa Armendarizen eta Oroben-goaren kontra arituko dira.

ARETO FUTBOLA

Bihar, Calasanz taldearen kontra jokatu dute Bañerako mutilek, eta neskek, Baro-Caloren kontra. Aurreko asteburuan, mutilek 12-7 galdu zuten, eta neskek, 20-0.

ZINEA

El destino del caballero filma izango da, 17:00etan.

KULTURA

Tellamendiko gurutzea berriro ipini zuteneko 25. urteurrena izan da aurreko astean

Martxoaren 5ean, Tellamendiko gurutzea berriro ipini zuteneko 25. urteurrena bete zen. Hori dela eta, Aramaioko EAJ jai berezia antolatu guran dabil. Besteak beste, gurutzearen gaineko argazki erakusketa antolatuko du EAJk, uztailean.

Gogora dezagun 1977ko urtarriaren leian Guardia Zibilak Tellamendiko gurutzea bota zuela lehergailu baten bidez. Horrek samin handia eragin zuen aramaiarren artean. Eta berehala, gurutzea berriro egin eta leku berean ipintzeko lanean hasi ziren herritarrek. Belamendiko Gurutzearen Batzorde Berritzailea sortu zuten, eta martxoaren 5ean, lehengo leku berean beste gurutze bat ipini zuten. Urte bereko uztailean 17an, berriz, ospakizun ofiziala egin zuten.



HERRIKO JOLASAK

GOMAN

Garai baten, material horrek beste funtzio bat betetzen zuen (josterakoan erabilia, batez ere). Orain dela hogeita hamabost bat urte sartu ei zen umeen jolasetan Aramaion, eta orain hamabost urte ere puri-purian zegoen. Garai baten, gorputzaren zenbait altueratan jarri eta mugimendu berak egiten ziren:

- Primeras orpoan jartzen zen.
- Segundas orpo eta belamen ariean.
- Terceras belanetan.
- Quintas gerrian.
- Sextas besapean.

Jolasteaz batera kantatu egiten da. Euskaraz topaturiko abesti bakarra honako hau da:

*Jendea ikusten dut
hondartzan
Neska-mutilak eguzkia
hartzen
Pozik ibiltzen gara
Ni, bitartean, bakarrik.*

'Aramaioko Joko eta Jolasak' liburutik aterata

BOTEPRONTOAN/ Jose Mari Etxabe · Barajuengo auzo-alkatea

“Kanpotik ez da inor etorri, baina etxebizitzak egiteko lurrengatik galdetzen ari dira”

Aramaion bada historia asko dituen auzo bat: Barajuen. Besteak beste, hantxe izan zen Torralde gaztelua, herritar batek baino gehiagok gorrotoarekin gogoratuko duena. Horrez gain, oso-oso antzinako erloju bat ere badago: geratzen den bakaurretakoa ei da eta bere kanpaiaren doinua Ibarra osoan entzuten da. Horrelakoak eta beste makina bat gauza kontatu dizkigu Jose Mari Etxabe alkateak; esaterako, auzotarrak oso ondo konpontzen direla elkarren artean:

Auzoko alkate...

Bai, eta berriro ateratzea toka daiteke, baina nahi ez. Nik diot auzoko alkate baino gehiago, auzoko morroia naizela. Zenbat zarete auzoan?

60 bat lagun. Guztira 19 etxe, baina bi hutsik daude eta hiru urruti samar: Bentamotz, Bolinburu eta Sologarri, hain justu ere. Auzokideen seme-alabak nor bere kabuz bizi dira, baina kanpotik ez da inor etorri. Hori bai, etxebizitzak egiteko lurrengatik galdetzen ari dira.

Zer eskatuko zenioke Udalari?

Gauza asko eskatu ditugu: bihurgune baten farola bat ipintzea; tabernaren aurrealdeko horman behera joan izan da jendea, hortaz, han hesi bat ipintzea, babesteko. Saneamendua gaizki eginda dago: teilatuetako, errepideetako urak... saneamenduarekin batera sartuta daude eta zaparrada handiak izaten direnean urak



gainetza egiten du; pilotalekua pintatzekotan gabiltza... **Pilotalekua ere baduzue?** Auzolanean egindakoa, 1975eko abuztuan. Urte hartan, urrian, inauguratu genuen: Olatxo eta Barandiaran Ezkerraren eta Arriaran II.aren kontra. 1976an, taberna zabaldu zuten, eta hari ipini zioten frontoiaren izena izan behar zena: Iparralde. Auzoko txokoa ere badugu. **Historia dezente ei duzue...** Izan zen, adibidez, Torralde izeneko gaztelu bat. Haren jabeak "lehen gaueko eskubidea" ei zuen, eta horren gaineko istorio asko daude. Orain, narrek eta sasiek hartuta dago. **Erloju berezia ere ei duzue...** Oso antzinakoa, elizan dago. Bakarrenetarikoa ei da.

Aretz
Taberna

Markole, 5
943 79 14 67
ARETXABAETA

“PAL”
burdindegia,
brikolage
eta tresneria

Urbarri etorbidea, 3
Tel.: 943 79 31 99 ARRASATE

**CLUB
IYOLA**

Elgetara bidea
BERGARA
943 76 11 29

LANDALUZE
HARATEGIA · URDAITEGIA
ESPEZIALITATEA : ETXKO TRIPAKIAK
ITURRIOTZ KALEA, 7 TEL. 943 79 14 86
ARRASATE

ERRETRATUZHARRA

Lau Sabinak,
Bruselako
Erakusketan

Bruselan, 1958. urteko abuztuan, Nazioarteko Erakusketa Industrialak egin zuten. Hori dela eta, Arrasateko Eskola Profesionalak hara joateko 106 lagunendako hiru autobus antolatu zituen. Gehienak eskolako ikasle ohiak eta eskolaren inguruan ibilitakoak izan ziren, 17 eta 60 urte bitartekoak.

Bidaiak 18 egun iraun zuen. Ibilbidea honakoa izan zen: Arrasate, Lourdes, Nancy, Bonn, Kolonia, Amsterdam, Rotterdam, Amberes, Brusela, Paris, Burdeos, Urruña (Lapurdi) eta Arrasate.

Laburbilduz, mundua ikusteko eta ikasteko gertu zeuden 106 lagun "ausart" ia Europa osoan ibili ziren (3.500 kilometro egin zituzten). Kanpinetan eta, bereziki, hestebeteak jaten. Gaizki esanek "Saltxitxoi Operazioa" izenez bataiatu zuten bidaiak hura. "3.500 pezeta ordaindu genuen bidaiak. Gure leloa zen ez zegoela ez antolatzailelerik ezta antolaturik ere. Eskubide eta betebeharrak genituen guztiok eta arrakastarekin zein porrotarekin



solidario ginen. Bilboko enpresa batek 35 kanpin-denda egin zizkigun. Bernizarekin babestuta zeuden izara zuriz egindako dendak ziren. Eurria egiten zuenean, gure lo lasaia astintzen zuen zirimir antzekoa sortzen zen denda barruetan.

Hirietara, museoetara eta enprestartara egindako bisiten barruan, nabar-

mentzekoa da Bruselako EXPOra egin genuena. Ezin dugu ahaztu ere Eindhoven-en (Holanda) zegoen PHILIPS enpresara egindakoa. 40.000 langile zituen. Eta izan genituen sufrimendu, neke eta oinazeen gainera, inor ez zen bidaiak hartaz damutu. Argazkiko lagunak honakoak gara, ezkerretik eskumara: Sabin Loroño (txoferra),

Sabin Zubizarreta, Sabin Martiartu eta Sabin Iturbe. Urruñako jatetxe baten sekulako bazkaria egin eta gero, Arrasatera bueltatu ginen".

Argazkia: Sabin Martiartu
Informazioa: Sabin Martiartu
Urtea: 1958

NOLAALDATUDIRENGAUZAK

Zaldibarko
kalea eta
egungo Hotela

Hogeita hamarreko hamarkadan Zaldibar inguruak zeukan itxura ikus daiteke argazki honetan. Argi dago argazki zaharra beste urtaro baten ateratakoa dela, askoz itzal handiagoa dago-eta. Garai hartan autoz zebilena gaur baino lasaiago ibiliko zen, baina Zaldibarko pilotalekuan seguru ez zela izango gaur egun izaten den giroa. Bada, denak ez du txarrera egiten.



≈ 1930 Aurreko aldean dagoen eraikina Hotela da egun. Eta ezkerreko aldean, berriz, Cerrajer lantegia zegoen, alderik alde.



2002 Gaur egun, argazkiaren ezkerreko aldean espaloi zabal bat dago, eta herritarrek paseatzeko aukeratzen duten leku bilakatu da.

**Amaiur
Taberna**

**Tapak
eskaintzen ditugu**

**Goizeko 7etatik zabalik
Bazkariak eta afariak**

Ignazio Zuloaga 6
Tel.: 615 79 75 19

**UGARAN
jatetxea**

Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

ARRASATE ORTOPEDIA

Osakidetzarekin eta Lagun Arorekin hitzartua

- Lantegi teknikoa (kortseak, protesiak, aparatu ortopedikoak)
- Gurpil-aulkiak (aluminiozkoak, elektrikoak, tolesgarriak, umeendakoak)
- Laguntza dinamikoak (komun igogailuak, garabiak, oheak, makilak)
- Oinaren tratamendua ordenagailu bidez (ordenagailutik bertatik kontrolatua)

Maalako Errabala 8 / Tel.: 943 77 20 78
Astelehenetik egubakoitzera: 10:00-13:00 eta 16:30-20:00



Berezitasunak

Kazuelatxoak

Otarteko hotz eta beroak

Arrasate pasealekua, 33
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76

Akelarre

Iturriotz 7 • ARRASATE



Eskulanetako eskolak ematen dira. Goizez eta arratsaldez.
Markoak ipintzen ditugu.
Zure eskulanak egiteko behar duzun guztia:

- Zeramikak
- Dekorazioa egurrean
- Erretxinak
- Olio-pinturetarako material guztia
- Margoak
- Pintzelak

Egin zaitez
bazkide orain,
%10eko
deskontuarekin



Segurtatu hobeto zure autoa

Segurtasun osoz



 **MAPFRE**

Zure bizitza kalitatea segurtatzen dugu

N & N sol

Solarium eta Estetika Zentro berria

Zerbitzu osagarriak:

- Mota guztietako tratamendu estetikoak
- Depilazioa
- Manikura, pedikurak
- Gel-azazkalak
- Permanenteak eta betileen tindatzeak

Ordutegia:

- Astelehenetik egubakoitzera,
10:00etatik 20:30era
- Zapatuetan, 10:00etatik 14:30era



Solariumerako bonuak:

- Sesio bat 5 €
- 10 sesioko bonua 42 €
- 20 sesioko bonua 72,5 €
- 30 sesioko bonua 90,5 €



Ferrerias kalea 28, behea ARRASATE

Tel.: 943 79 64 57